

HERRI eta IRRI

x. amuriza

ALFABETATZEN



ELKAR

HERRI eta IRRI

x. amuriza

ALFABETATZEN

ELKAR

© ELKAR, S. A.
Esterlines, 10 - Donostia

Depósito Legal: NA. 1.378-1985
ISBN 84-7529-303-4

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L. Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

HITZAURREA

HERRI ETA IRRI Euskal Herrietan zehar batutako berrien irria da. Gure zenbait herritako umorea eta pertsonaiak. Hau ez da txiste liburua, egizko pertsonaien kontaerak, ateraldiak eta munduari buruzko pentsakerak baizik, beti ere, hori bai, alderdi umorezko-tik heldurik.

Sail hau EGIN egunkarian agertu zen 80.ko Irailaren 13.tik 81.ko Azaroaren 21 arte. Sailak orrialde osoa hartzen zuen eta kondakizunak mailakaturik etortzen ziren euskara aldetik: Lehen maila, Bigarren maila, Hiru eta Laugarren mailak eta Alfabetatzen. Azken honekin bilduma osatzen dugu, aurreko hirurak argitaratuak bait dira. Lauren artean, beraz, herri beraietako berria osatzen da.

Laurogeita bateko Azaroaren hogeita batera artekoa dela esan badut ere, HERRI ETA IRRI sailak segitzen du oraindik, baina data hartatik aurrera alfabetatze mailan edo euskara normalean bakarrik.

Haizea beti ari da herriaren sormena jotzen, bai eta sortutakoa eramaten ere. Etengabe sortzen eta galtzen ari den obra horretatik zerbait inprimaturik uzteaz gainera, liburu honek alfabetatze lanerako ere balio baldin badu, bi txori eder askatu ditugu batera.

ABADIÑO - BIZKAIA

NAZIONALEKIN POZIK

Senar-emazte batzuk oso frankozaleak ziren eta nazionalak Elgetatik honuntz sartu zirenean, hura haien poza.

— Oraintxe ez da ezer falta —esaten zuten.

Egun batzutan heuren etxean eduki zituzten soldaduak, zeukaten guztia emanaz.

— Oraintxe ez da ezer falta.

Soldaduak joandakoan, kutzako urrezko ontziak falta zirela ohartu zen emaztea. Senarrari esan zion eta honek:

— Zaude isilik, andrea! Hori ez liteke izan.

Azkenean gizonak ere falta zirela ikusi zuen eta kutxa hutsera begira, hotsegin zuen:

— Arraioa! Horiexen artean ere gorriak zebiltzak!

GARTZELAKO ERREZUAK

Maurizio, Patxi, Luzio agoazila eta beste abadiñar batzuk Bilboko Larrinagako gartzelan zeuden. Patxik Luziori esan zion:

— Luzio, hemen astia ere badugu eta San Antoniori paternoster bat errezatuko al diogu?

Luziok erantzun:

— Heuk errezatu nahi baduk. Ni ez nauk ganadua.

Maurizio eta Patxi zinegotziak ziren Abadiñon. Gero Astorgako gartzelan zeuden, aurretik beste bost gartzela pasaturik. Han, fraile baten bidez, Maurizio korian kantari sartu zen. Bai eta meza ederra kantatu ere behin katedralean. Patxi Lebariok erdi txantxetan esan zion:

— Maurizio! Abadiñon ondo, baina Astorgan benetan ondo.

Mauriziok erantzun zion:

— Abadiñora goazenean, Patxi, hobeto kantatuko dudala uste dut, gu sartu gintuztenek entzuteko moduan.

Herriko salatzaileak esan nahi zuen.

LARATZEAN TELEFONOA

Patxi eta Zizilio gitarra joleak ziren. Zizilio gainerra errondari handia zen. Gabon Zaharrez Patxik esan zion:

— Hi Zizilio! Gitarraldi bat joko al diagu gaur?

— Andrea engainatzen badut, etorriko nauk —esan zuen Ziziliok.

Afalondoan haurrak oheratu ziren eta senar-emazteak su ondoan zeuden. Ziziliori ez zitzaion atxakirik bururatzen. Halako batean, su gaineko laratzari heldu eta telefonoa balitz bezala hizketan hasi zen:

— *Hombre, Patxi! Qué? Sí, enseguida...*

Andreak esan zion:

— Zizilio! Zoratu egin al zara?

— Zer zoratu eta zer atorra! Patxi txoferra telefonotik deika ari da, gu kanpoan ibiliak baikara.

Zizilio Patxirenera joan zen. Biharamonean Zizilioren andreak beste andre bati esan zion:

— Zer moduz diozu? Nire barreak atzo. Gure Zizilio «tiliponoa» hartuta larazetik hizketan. Horiek kanpoan ibiliak dituzu. Guk ez baitakigu ezer.

Emakume gaixoa guztia sinesturik zegoen.

AREITIOREN OILAGORRA

Ehiztariek gezurti fama izaten dute —kontatzen digu Abadiñoko Areitio bertsolariak—, baina nik gezurra esanda ez dut ezer irabazten eta egia esanda ere askorik ez.

Behin anaiak eta biok oilagor bat jaso genuen. Zuhurra eta tiro asko entzuna zen, gorrak direla baina. Bi edo hiru aldiz jaso eta ikusi ere ez. Halako batean txakurra berriro geldi. Anaia behetik eta ni goitik, ondoratu ginen. Jaiki zen. Ez nuen ikusi, baina hegoen hotsera danba-danba bota nizkion tiro biak.

— Zer?

— Ez zekiat, ez diat ikusi-ta.

Anaiak orduan:

— Nik ere ez, baina hementxe aurrean jausi den hotsa izan duk.

Alferrik bila ibili ginen. Goiza pasatu eta bueltan gentozela, berriro ere anaiak hantxe begiratu behar zela. Bazen han ardi borda bat. Ea barrura erori den. Bai zera! Baina begiratu genuen eta han zegoen oilagorra. Hura gure poza! Gero teilatuari begiratu genion eta zulo bat zeukan. Sinesteko obligaziorik ez dago, baina guri horixe gertatu zitzaigun —amaitzen du Areitiok.

ANBOTOKO PERU ETA ANTON

Hona hemen koplak zahar batzuk, Durangaldean eta Arratian bilduak. Baliteke gehiago ere izatea.

- 1) *Bizkaiko bazter baten
Anboto partean
gizon bi bizi ziren
baserri batean.*
- 2) *Gizon biok zirean
Peru eta Anton
heuren aldi guztian
biziak Anboton.*
- 3) *Goizean sartzen ziren
tabernako atean
ez zeuren aldegiten
bihamon artean.*
- 4) *Biok batu ezker
edaria bonbon
atsoari esanda
banoa ta egon.*
- 5) *Biek egin ezker
seguru juntea
mozkorrik hartu gabe
etxera ez joatea.*
- 6) *Erretiratu arte
herriko jentea
etxera doanari
kentzeko multea.*

- 7) *Peruk dinotso Antoni
ataraik pipea
azumbre t'erdirekin
beteku tripea.*
- 8) *Atsoari gorde neuntsan
ule kopetea
kostako jakok orain
bera topetea.*
- 9) *Salduta edan daigun
aguardientea
burumotz dabilela
atso tronpetea.*
- 10) *Nire kortako burdia
balitzok kotxea
hantxe ibiliko neukek
neure atso motxea.*
- 11) *Etxean egin arren
sarri morokila
horrek ipinten yeustak
estomangu hila.*
- 12) *Goazen tabernara
hobearen bila
atsoa umeakin
aforrau dedila.*
- 13) *Lebatz eta ternera
lukainka musturra
horrekin egoten dok
tabernan gustura.*

AHETZE - LAPURDI

AHETZEKO TRENA

Ahetzen, jakina denez, ez da trenik. Behinola norbaitek Ahetzen trenik ez den galdetu zuen. Ahetzetar batek erantzun zion:

— Behin etorri zen, baina zakurrek izutu eta buelta egin zuen.

BORDELE SUTAN

Ahetzetar honek beste behin berri ikaragarria zabaldu zuen:

— Bordelen kale oso bat erre dela dio egunkariak.

— Nondik edo zertatik erre duk, bada? —galdetu zioten.

— Josteko makinatik —erantzun zuen. Jakina denez, orduko josteko makinaren indarra jostunaren hankak ziren.

EZ ZEN SORGINA

Ahetzeko emakume batek sorgin fama zuen. Emakume iturrian garbiketan ari zen. Gizon bat alboko landan belar ebakitzen ari zen. Segalariek opotsa esaten zaion ontzi bat erabiltzen dute gerrian, zorroztarria bustirik edukitzeko. Gizonak ura eskatu zion, opotsa lehor omen baitzuen. Emakumeak opotsa urez bete eta gizonari bihurtu zionean, gizonak emakumeari aurpegira bota zion esanez:

— Esaten baitute sorgina haizela, ez dun asmatu zer egin behar nuen.

Hortik atera zuen gizonak ez zela sorgina.

ILARGIA HORTZEKIN

Mattin agure batekin belar ontzen ari zen. Askari orduan, Mattinek txapela erantzi zuen eta burusoila agi-
rian geratu. Lankide agureak esan zion:

— Sekula ez diat merendatu ilargi zuritan.

— Bai! Eta ilargia hortzekin! —erantzun zion Matti-
nek, besteak ez baitzuen hortzik.

SAN PEDROREN ATERAINO

Mattin ixtripu gogorretik sendatzen ari zela, nor-
baitek galdetu zion ea ez zitzaion noizbait beste mun-
durik bururatu. Mattinek erantzun zuen:

— Bai eta San Pedroren ateraino iritsi ere. Baina
hark esan zidan oraindik txikia naizela eta pixka bat
hazitakoan etortzeko.

ALBISTUR - GIPUZKOA

BENTTA ETA APAIZA

Benttaren garaian, herriko apaizak oso zuzena izan behar zuen. Aste Santuan hilerrian gau osoak egiten zituela errezatzen esaten dute. Dena dela, oso zintzoa oman zen apaiza bere legean. Benttarekin topo egin zuen eta hau, jakina, kargatu samarra zetorren, beti bezala. Apaizak esan zion:

- Zuzen ibili, Julian, zuzen.
- Errebueltetan ere bai? —bota zion Benttak.

ELIZARA NOIZ

Beste behin apaiz honek beronek Benttari esan zion:

— Bazabiltza orain ere, Julian. Ai ai! Gaur igandea eta mezatarara ez zinen joango.

— Ez, jauna. Ez naiz, ba, joan.

— Baina Julian! Elizara joan beharra dago!

— Bai —erantzun zuen Benttak—. Bestela platera pasatzea alferrik da.

LUKAS HIL AL DA

Behin Bentta herriko tabernara iritsi zen eta han aurkitu zuen etxeoandrea negarrez, zotinka zioela:

— Ai Lukas! Lukas gizajoa!

— Lukas hil al da, ba? —galdetu zuen Benttak.

— Ez al duzu agoniarik entzun? —galdetu zuen etxeoandreak.

— Esan al du, ba, zein hil den? —Benttak berriro galdera. «Agonia» kanpai klase bati esaten zaio.

MOTXONDO ETA MUXARRA

Tabernatik zein baino zein mozkorrago irten ziren Bentta eta beste bi lagun: Motxondo eta Muxarra. Izenez behintzat ez zen hirukote txarra. Bentta ohartzen da irteeran beste biak erori direla eta bertso hau kantatzen du:

**Beltzean beltza dala
Lakuntzako pertza
Motxondo erori ta
Muxarra ezin altza
hirurok badaukagu
guk alkarren antza.**

BEGIONDOKOA

Albisturren bazen gizon bat, norbaitek begiondokoia erantsia. Begia beztua eta handitu samarra zeukan gizonak. Bentta tabernan sartu zen eta harekin topo egin zuen. Benttak baso bete ardo eskatu zion eta besteak eman ere bai.

- Hauxe ardo ederra! —hotsegin zuen Benttak.
- Bai. Besteek emana ona izaten duk beti.
- Begiondokoia ere bai? —galdetu zion Benttak.

ME-ME ERREKALDE

Tabernan sartu zen, baso bat ardo eskatu zuen eta zurrut bat egin ondoren, Benttak esan zuen:

— Ardo honek izena Me-me eta deitura Errekalde. (Ardo mehe mehea, errekakoa edo urduna).

OILANDAK AMA BIRJINARI

Bada Kizkitzan, Ezkio aldean, oiloen gaitzen kontrako Ama Birjina bat. Behin amak oilanda pare batekin bidali zuen Bentta Ama Birjinarengana. Etxetik pixka bat urrundu zenean, oilandok libre utzi zituen, esanez:

— Zeuek joan zaitezte.

DURO BATEN BEHARREZ

Askotan bezala, dirurik gabe aurkitzen zen gure Bentta eta gizon bati ekin eta ekin ari zen, duro bat emateko. Noizbait besteak, bakean uzteko edo, eman zion

eta Benttak honela eskertu zion:

— Bejondeizula! Zu baino gizon txarragorik bada, putzura botatzeko.

BENTTA LAGUNTZAILE

Albisturko aldapan gora kamioi bat aberiatu zen eta geratu beharra izan zuen. Bentta han gertatu zen eta txoferrak esan zion:

— Hi! Jarriko al diok harri bat, mesedez?

— Bai, gizona! —erantzun zuen Benttak. Harri bat ekarri zuen, baina gurpilez aurrean jarri zion.

HAIZEA ETA JAINKOA

Bentta Bidaniko kooperatibara joan zen. Haize handia egiten zuen eta baserritaren zentroko toldoa eramana zuen.

— Zer gertatzen da? —galdetu zuen Benttak.

— Haize honek hondatu behar gaitu.

— Jainkoa ezagutzen al duzu? —galdetu zion Benttak.

— Aditzea badut, baina ez dut, ba, ezagutzen —erantzun zuen bidaniarrak.

— Hauxe da, ba, Jainkoa. Indar asko eta ikusten ez dena.

ARIATZA - BIZKAIA

ARIATZAKO GIZONIK FORMALENAK

Aitita Bixente zenaren seme Patxikori **Herri** esaten diote. Baditu 77 urte. Ariatzako Sardui tabernan txerri afaria zen. Santi Jauregik Gerardo tabernakoari kotxez etxera eramateko eskatu zion. Herrik orduan Santiri:

— Hik beti kotxez joan behar al duk etxera? Neuk eramango haut karroan, **Bukero** lotuta.

Bukero Herriren astoa da. Maribi tabernakoak Herriri esaten dio:

— Ez astorik ekar ordu hauetan. Eskandalua besterik ez duzue aterako. Neuk lagunduko dizut karroa eramaten.

Herrik pozik entzun zuen hori. Etxera joan eta karroa ekarri zuen, belar lehorra husturik. Santi Jauregi

karroan eseri zen, purua erretzen. Antonio linternaz aurretik jarri zen, kaminotik joateko. Orduak Ikerik esan zuen:

— Hi aurretik? Ba, neu jarriko nauk atzetik, kamioiarekin argi egiten.

Hala abiatu ziren Ariatzako gizonik formalenak. Berrehun metrora, Iberreko bide zaharretik hartu eta Uriarterenean ere txerri afaria zen.

— Etzan hadi —esan zioten Santiri.

Kotxea zegoen bidean eta esan zuten:

— Santi gaizki dakargu eta ken kotxea mesedez.

Etxe hartako alabaren nobioak arrapataka baztertu zuen kotxea, ikaraturik. Untxitegia ere aurrean eraman omen zuen. Atariko argiak biztu zituzten eta hara non jaikitzen den Santi, puruari ederki tiratuz.

Hurrengo etxea Ibarre zen, Santiren Etxea. Han aldatxoa dago eta Herrik esan zuen:

— Ea Maribi. Oraintxe indar pixka bat, txerri hau astuna baita.

Santik karrotik:

— Bederatzi artoa eta hamargarrenaren zati on bat.

Ez zuen Santik gezurrik esan, gizon ederra baita.

Iberreko etxeak bi bizitza ditu eta etxekonen, aldamenean, Patxoa mutilzaharra bizi da. Han ere Santi berriro etzan zen eta Patxoa ohetik jeiki erazi zuten. Gizonak susto ikaragarria hartu zuen. Santirengana hurretaturik, esaten zion:

— Santi, egik hitz, ba! Zer gertatzen zaik, giza-gaixoa?

Gerotxoago esturaren esturaz esan zuen:

— Nik zerbait egin behar dut.

Eta txixa egiten hasi zen. Bien bitartean, Santi nekatu zen etzanda eta han zegoen lasai eserita, puruari azken tengadak emanaz. Patxoaren bigarren sustoa ez zen txikiagoa izan.

Bidean bueltan, Maribik Herriri esan zion:

— Ai, Patxi! Zerbait egin behar, zahartzaroan haurrei kontatzeko ere.

Herrik bere 77 urtekin erantzun zion:

— Kontatu? Ni egiten hasi naiz zahartzaroan.

ARRASATE - GIPUZKOA

FELIX BASABE

Arrasatetar famatu hau Gesalibar auzokoa zen. Duela hogeita hamar urte hil zen, laurogei urtekin. Somorrostron meatzari ibilia zenez gero, erdaraz ikasi zuen. Baina ez zekien irakurtzen. Kazinttok, ordea, irakurtzen bazekien, baina ez zekien erdararik. Orduan zer egin? Kazinttok irakurtzen zuen egunkaria eta Basabek euskaratu.

Basabe Somorrostron ibili zela esan dugu. Behin, barrakoietan jokoan zebiltzala, pixagalea etorri zitzaion. Zulo batetik kanporuntz pixa egiten hasi zen. Kanpoko aldean zegoen norbait busti zuen. Honek makila bat hartu eta zakilean jo zuen. Baita ederki hondatu ere. Hortik, dirudienez, familiarik ez izatea.

SOMORROSTROTIK BASERRIRA

Somorrostron hainbat denbora eginik, bere baserrira itzuli zen bizitzera. Baserri hari «Basabena» zerritzan. Baina izatez ez zen berea, Aramaioko Añibarroko ugazabarena baizik. Ugazabak, Basaberi ezer esan gabe, mojei saldu zien baserria. Basabek berriz, erosteko asmoa zeukan eta horretarako dirua eskaturik ere bai. Basabek, mendekuz, gauero kaka egiten omen zuen ugazabaren garajeon. Ugazabak esaten zuen:

— Hau ez duk umeen kaka. Hau ardo beltza edaten duenarena duk.

BASABE ETA FRAILEA

Arantzazuko fraileraren bat urtero etortzen zen etxerik etxe, txerri hanka, baba, indaba eta abar eskatzera. Behin fraile gazte bat heldu zen Basaberena eta Basabek esan zion:

— Txerri hankarik ez daukagu. Babarrunik ere ez. Baina zuk kokot ederra daukazu, lan egin nahi baduzu.

NESKAMEA ETA GURTARDATZA

Basabek neskame bat zeukan etxerako hartua. Neska hura bazebilen gurtardatza uztarrian sartzen. Baina ezin zuen, gurtardatza berria baitzen. Basabek, lan hartan ikustean, esan zion:

— Horrek ba al dakin zer behar duen? Francoren ezkerreko potro alearekin bilgorraldi (seboaldi) on bat.

BASABE ETA KAPUTXINOA

Arantzazuko frailea bezala, beste behin kaputxino bat etorri zitzaion eske. Basabek hauxe esan zion neskameari:

— Hi, Kazintte! Hemen zegon hau, potroetarainoko bizarrez eta hanketarainoko arrosarioekin. Ea zer behar duen!

BETULAS TRABAUS

Basaberen emazte Benanzia gaixorik zegoen. Begietako gaitzen bat zeukan eta ohean zegoen, begirik ireki ezinik. Medikua etorri zen eta zer zeukan galdetu zion erdaraz Basaberi.

— Aquí, betulas trabaus! —erantzun zuen Basabek (Betula, betule edo betile).

OILARRA ETA OILOAK

Poliki poliki «Basabena» baserriko lurrak kentzen ari ziren mojak. Esana dugu baserriaren jabeak mojej saldu ziela «Basabena» Basaberi ezer esan gabe. Kanuto izeneko etxegilea etxe ingurura heldu zen, bi moja alboan zituela. Planak egiten noski. Basabek ikusi zituenean, esan zuen:

— Aquí viene un gallo con dos gallinas.

EHIZTARI TREBEA

Marko Etxebarria ehiza zale haundia zen. Bere ehiza gora eta ehiza behera zebilen beti. Behin lagun batzuk, Betsaideko mendian, zerri bat bidali zuten, pintaturik. Marko joan zen, beti bezala, eta laster bota zuen zerrria, basurdea zelakoan. Herrira ekarri, basurdea jan eta egundoko ospakizunak egin zituzten. Domina bat ere ipini zioten, oroigarritzat. Halako urdaiazpikorik ez omen zion sekula ezein zerriri jan.

MIGELTXOREN ARGIA

Argia ekarri berri zuten herrira eta Migeltxo zen argi emale. Ordaintzat, San Joan bezperan eta Santo Tomasetan afaria ematen zioten. San Joan bezpera batez ez zen argirik. Denak Migeltxoren bila ari ziren, alkattea aurrenengo zela. Halako batean topatu zuten eta:

— Non haiz?

— Santo Tomasetako afaria! —esan zuen Migeltxok—. Bestela ez zegok argirik.

Aurreko urteko afari hura eman gabe utzi zioten nonbait. Hitzegin zuten, afaria eman zioten eta argia etorri zen.

— Migeltxok eman jok (dik) —esaten zuten herrian, argia etortzean.

PEDREÑAREN AZAINAK

Pedreña lagun batekin mendira joan zen, eskupeta eta guzti. Eguerdiko ordu batetan Portaloian agertu zen, azeri handi batekin. Laguna barreka zetorren. Lagunartearekin batu zirenean, haiek berehalaxe bidali zuten azaina hura egunkarietara:

— «Zona de Campazar. Afamado cazador. Caseros contentos»

Egunkarian berria agertu zen. Kanpazar inguruko baserritar bat herrira jaitsi zen eta esaten zuen:

— Dena gezurra! Artean (tranpan) harrapatu zuen. Azkenean makilaz buruan jotzeko ere ez zen gauza eta neuk akabatu behar izan nuen.

Halako nahastea armatu zen Arrasaten. Egunetan ez zen Pedreña kaleratu. Arrantzan, ordea, trebeagoa zen Pedreña. Adreiluz harrapatzen omen zituen amorrainak eta eskailuak. Nola? Etxea erreka gainean zeukan. Adreilu bat uretan utzi eta haren zuloetan laurogei eskailu eta amorrain bat harrapatu omen zituen behin.

MARITXU KAJOIA

Arrasaten bazen ama birjina bat, elizako ate gainean, kalerantz. Oso gaizki zaindua. Txikiteroak egu-

nero azpitik pasatzen ziren, sekula ohartu gabe. Edo jaramonik egin gabe behintzat. Behin, hala txikitero talde bat pasatzean, norbaitek esan zuen:

— Zer zegok hemen?

— Zeuen ama! —erantzun zuen Letonak—. Zer-gatik ez diagu geure zaindaritzat hartzen?

Esan eta izan. Izana eta izena. Bitrinan sartu zuten eta «Maritxu Kajoia» jarri zioten izentzat. Mugimendu handia sortu zen eta egun bat meza eta guztikoa egitea pentsatu zuten. Meza eta guzti eta txikitoaren bedeinkazio eta guzti. Hara, ordea, parrokoa hil zela. Hurrengo parrokoari ez zitzaion martxa hura ondo iruditzen, ama birjinaren profanazioa edo horrelako zer-bait zelakoan. Parroko berriak ez zuen ospakizun haie-tarako baimenik eman eta Maritxu Kajoia bedeinkatu gabe geratu zen. Baina geroztik huraxe da Arrasateko Ama eta txikiteroen zaindaria.

HILARIO BALOI

Gizon hau gezur asmatzaile handia omen da. Dabilen lekuan beti sartuko du aldrebeskeriaren bat. Behin Muxibarko tabernakoak esan zuen:

— Etxera joan behar diat. Barraskilo (karakol) pila bat zeukeat garbitzeko.

— Hori errez egiten duk, gizona —esan zion Hilariok—. Ikuztailuan (labadoran) sartu eta ederki geratzen dituk.

Besteak sinestu eta hala egin zuen. Baita tresna ederki izorratu ere. Hura zen karraskada eta makina hotsa. Tresna izorratu eta barraskiloak agur. Gaineko egun batez, Hilario ikusi zuen eta:

— Hik zer esan hidan niri? —galdetu zuen Muxibarkoak.

— Zein ikuztailutan sartu hituen, ba?

— *Otsein-en*.

— Ez, gizona! —hotsegin zion Hilariok—. *Edesa-n* garbitu behar dituk.

JAXINTO ETA FELIX

Jaxinto bizi da bere laurogeita hamazazpi urtekin. Honek garai haietan ez zekien euskaraz besterik. Gaur ere ez du erdara askorik jakingo. Felixek zer bait erdaraz bazekien, Somorrostron egonda. Baina ez zekien irakurtzen. Jaxintok, ordea, bai. Bata, beraz, irakurtzen zekiena, baina erdaraz ez zekiena. Bestea berriz, erdara pixka bat zekiena, baina irakurtzen ez zekiena. Bigarren munduko gerra zen. Jaxintok egunkari erdal-duna altu irakurtzen zuen eta galdetzen zuen:

— Zer ipintzen dik?

— Hauek aleman txerriok! —esaten zuen albotik Felixek. Eta hala bien artean irakurtzen zuten egunkaria.

ARTEAGA - BIZKAIA

TENBOTE ESKALEA

Bitor Tenbote eskale famatua zen Arteagan. Etxerik etxe ibiltzen zen herrian, han-hemen ematen ziotena janez: ogia, artoa, askaritxoa, afaria ere bai. Baina dirua ere ematen zen, txanponak batez ere. Tenbotek Arteagako eskola azpian lo egiten zuen, koltxoi zahar baten gainean. Hil ere hantxe hil zen. Hilotza (gorpua) jasotzean, ba al dakizue zer aurkitu zuten? Galdara bete txanpon koltxoipean. Diru guztiak zorriz josiak. Diruak banatzea pentsatu zutenean, inork ez zuen diru hura nahi. Eskalearen herentzia zorriek jana.

LAPURRAREN TESTIGUAK

Ba omen ziren Arteagan errigoitiar batzu, inoren gauzak hartzen nahiko profesionalak. Behin halako batek Esteban Arteagara karroan ekarri zuen. Tabernara sartu ziren eta txikito bana eskatu zuten. Ordaintzeko, Estebanek diru pila atera zuen. Tabernariak esan zion:

— Gizona, ez al zara bildur hainbeste diru erabiltzen?

Estebanek erantzun:

— Bai zera! Gauza horiek lehenago ziren, Joandios eta Ezkerra eta haien denboran.

Hain zuzen, Ezkerra bera zen Estebanekin zegoena. Gizona biziki haserretu zen eta testigu bila hasiko zela mehatxatu zuen. Orduan Estebanek esan zion:

— Bai gizona! Horiek denek zekitek lapurra haizela.

APAIZAREN OSTIKADA

Beste behin Kanaleko apaiza oinez zihoan gauez. Ezkerra bidera irten zitzaion.

— Zer behar duk? —galdetu zion apaizak.

— Dirua! —esan zuen Ezkerrak.

Apaizak dirua atera eta «tori, ba» esanez, hogerleko bat lurrera bota zuen, erori balitzaio bezala. Ezkerre makurtu zenean, apaizak egundoko ostikada eman zion atzetik, esanez:

— Berriro nire aurrera ez etorri gero!

HURA APAIZA

Arteagaz hitzegitean, hango apaiz famatu bat aipatu gabe nola utzi! Ihazko urtean hil zen. Elizako kulpituan Espainiako bandera handia zeukan. Bere etxeko balkoian ere bandera bat zegoen. Eliztarrek haren azpitik pasatu behar zuten elizarantz eta denek eskua altxatu behar zioten banderari. Gerra ondoko urteetan, hamaika herritar galdu zuen apaiz honek. Hona hemen elkarrizketa bat, herrian nola ikusten zuten:

Gizon batek: —Hain fama txarra? Emakumeekin ibiltzen al da, ba?

Arteagarrak: —Baita gizonekin ere.

Besteak: —Gizonekin zertan?

Arteagarrak: —Lepoak mozten.

Goian bego.

KONTRA ETA ZUZEN

Aleja bidagina beti kontra egitekoa omen zen. Behin elizatik irten eta euria zen. Alejak bakarrik omen zeukan euritakorik eta esan zioten:

— Ireki ezak, ba!

Orduan Alejak batere ireki ez. Euria bota ahalean zen eta bi kilometro euritakoa eskuan zuela egin zituen. Lagunengandik apartaeran, «a joderse» esan eta orduantxe ireki zuen euritakoa.

Bidagina zenez, harriak eramaten ari zen. Hilariok errepide ondoko bere bide bazterra konpondu nahi zuen. Horretarako harria bota behar. Nola? Alejari esan zion:

— Aleja! Hor ez bota gero harririk, neure terrenoa da-ta.

Orduan Alejak bota eta bota. Bide bazterra ederki bete zion, «a joderse» esanda.

Behin Alejari talo hirina eman zioten Ozamizen. Alejak bidean hirina zegoen bezala jan zuen. Emakumeak elizaruntz zetozen eta Alejak esku hirinez tatuak atzera bota zituen, mutikoak bezala. Emakumeek esan zioten:

— Eskuak gorde dituzu baina muturrik ez duzu gorde.

Honelakoxea zen gure Aleja fina.

KANTABRIA

«Kantabria» esaten ziotena ez da behingoan ahaztuko Arteagan. Behin hanka bat apurtu zuen Kantabriak. Medikua etorri zen eta Kantabriak hanka sana eman zion medikuari, igurtziak egiteko. Hala ere berdin sendatu omen zitzaion.

Gau batez, ohean zegoela, «klu-klu-klu» entzun zuen. Hurrengo gauean ere berdin. Kantabriak makila handi bat hartu zuen ohe ondoan. Eskopetarik ez zuen nahi, lehertuko zitzaion bildurrez.

Berriro ere «klu-klu-klu» entzun zuen. Azkenean hara non irten zen ohapetik oilo loka bat txitekin. Oiloa goiz erretiratzen zen ohapera, eta Kantabria oheratzen zenean, ezin isilik egon hura ere.

Kantabriak, ohean txizalarri zenean, bertatik egiten omen zuen txiza. Baita ohe aurreko ohola usteldu ere. Behin ohetik saltatu zuen, ohol ustelak krak egin zuen, eta sukaldean agertu zen Kantabria.

Kantabriaren semea ganadu jatekoak egitera goiz joan zen, ganaduak aitak gobernatzekotan. Semea etxeratzean, ganaduak orroaka eta aita falta zen. Tabernara joan zen eta han zegoen Kantabria, koartilo bat ardo aurrean zuela. Mutilak esan zion:

— Aita, zer egiten duzu hemen?

Kantabriak erantzun zion:

— Zer egitea nahi duk, ba, neure abarkak eraman dituk eta?

Kantabriak alaba bat neskame zeukan. Pare bat as-
tetarako etxera etorri zenean, Kantabriak ez zuen hark
garbituriko arroparik jantzi nahi. Señoritoekin bizi zela
eta horiekin gaisoa besterik ez dela batzen eta abar.
Kantabriak hamabost egun ohean egin zituen, biluzik
eta irten gabe, alabak etxetik alde egin arte.

ASTEASU - GIPUZKOA

TXARRAK ETA TXARRAGOAK

Hildakoan denak onak. Hiltzea izan ere bueltarik gabea izaki, orduan txarrenari ere pena hartzen zaio. Asteasuar bat hil zen eta hiletan, ohi bezala, jende asko batu zen. Eta ohiko solasak. Asteasuar batek hila-rengatik esan zuen:

— Gizona ona.

— Onik ez zegok bat ere, txarrak eta txarragoak baizik —erantzun zuen beste asteasuar batek. Eta beste batek gaineratu:

— Ez al zitekek txarrenetan onena izan?

APAIZAREN NESKAMEA

Asteasuko baserri batean bazen neska eder bat eta apaizak esnea handik ekartzea pentsatu zuen. Handik ekartzekotan, neska harexek ekarriko ziola pentsatzen zuen eta halaxe gertatu zen. Neska eder hura apaizari esnea ekartzen hasi zen. Handik egun batzutara, apaizak neskari «kriada» etortzeko eskatu zion. Nola ukatu? Neskame normalei «neskamea» esaten zitzaien. Apaizarenari, ordea, «kriada». Horrela «neska kriada dugu» esatea ohore handia zen baserri baterako.

Neska hura apaizaren «kriada» geratu zenean, bigarren ahizpa hasi zen esnea ekartzen. Bigarren honek bazuen bere bekaitz gordea. Goiz batez atean aurrera sartu zen eta —begi bizkorrak izaki— ahizpa neskamea beste gela batetik irtetzen ikusi zuen eta ez beretik. Egund batzutan, disimuloz, zokondoak ikusmiratu zituen eta aprobatzea pentsatu zuen. Nola edo hala aurkitu zuen bitartea eta apaizaren armariotik balioko bitxiak falta ziren. Apaiza haserre zebilen. Neskamearen ahizpari botatzen zion errua, bestea ederregia izaki. Apaiza nesken amari kexatu zitzaion, zer susmo zeukan azalduz. Biharamonean amak apaizari esan zion:

— Jauna! Alabarekin hitz egin dut eta hark etxea miatu nahi luke.

Apaiza konformatu zen. Bigarren neska joan zen eta sukaldea miatzen hasi zen. Ez zen ezer ageri. Gero ahizpa neskamearen ohea miatzen hasi zen eta hara han falta ziren jeneroak. Orduan bigarren neskak apaizari

esan zion amaren aurrean:

— Bere ohean lo egin balu, gogoratuko zen non zeuden.

Azpikeria huraxe egin zion neska bekaiztiak ahizpari. Amak bi neskak hartu eta etxera eraman zituen, apaiza ahoa bete hortzez utzirik.

SAGARRAREN ESKOMIKUA

Baserri batean laiariak ari ziren. Garai hartan apenas zen oraindik golderik. Auzoak biltzen ziren eta gizon pila errezkadan jarririk, etxeetako laiaketak txandaka egiten zituzten. Laia bi hortz luze dituen lanabesa da, lurra iraultzekoa eta eskuz erabiltzekoa. Sagar adarrean sagardo txarroa zeukaten.

Baserri ona zen eta txarro zilarrezkoa zen. Lanaldi bat amaitzean, sagardoa edatera joan eta txarro falta zen. Sagardoarena gutxiena zen, baina txarro zilarrezkoa ez zen nolanaahi galtzekoa. Etxekoek apaizarengana jo zuten kexaz. Apaizak hurren igandeko sermoian bekatua salatu zuen, baina bekataririk ez zen ageri. Orduan apaizak eskomikua (eskomunioa) agindu zuen. Paperak heldu ziren eta txarro lapurra bildurtu zen nonbait. Eskomikua bota aurretik, txarro zilarrezkoa bere sagar adarrean agertu zen.

Baina ekarria zutenez gero, eskomikua nonbait bota egin behar zela eta paperak sagar baten adarrari erantsi zizkioten. Hain zuzen sagar hura ihartu egin zen.

APAIZ BATEN AMODIOZKO PENAK

Bazen apaiz ehiztari bat, ehizara baino beste zer-baitera zalegoa. Mendi etxe batean bazen neska eder bat eta apaizak, ehiza atxakiz, hara jotzen zuen beti. Han, nola ez, ederki hartzen zuten apaiza eta apaizak ederkiago hartzen zuen hura. Baina gauza on guztiek alderdi txarren bat izaki, apaizak pentsatu zuen:

— Jendea gaizki esaten hasiko duk.

Orduan, disimulatzeko, mutil bat ehizara lagun eramaten hasi zen. Mutil ona eta herrian izen onekoa izanik, apaiza pozik joaten zen harekin ehizara, gero bueltan etxe hartatik pasatzeko. Gosari edo zerbait beti jartzzen zieten eta ederki. Eta gainera apaizaren pentsakizunen berririk ez.

Mutil hura, ordea, ona zen, baina ez tentela. Eta gainera mutil ederra. Eta gainera apaizaren pentsakizunen berririk ez zekiena. Gosariari aina begiratzen zion etxeke alabari. Honek ere apaizari baino gustorago begiratzen zion mutilari. Harremanetan hasi ziren eta gero ezkondu egin ziren. Apaiz gaixoak nolako atsekabea

hartu zuen adierazterik ez dago. Gainera berak ezkondu ere. Pena izugarria geratu zitzaion bihotzean. Zerbait esan ere bai mutilari, dena ez bazen ere. Gero apaizak egunean hainbeste aldiz kantatzen omen zuen bertso famatu hura:

**Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe
badauzkat bihotzean mila atsekabe
Maite bat maitatzen det eta haren jabe
sekula izateko esperantza gabe.**

Herritarrek ez zekiten asko zergatik kantatzen zuen apaizak hori.

BERDIN DA

Asteasuar batekin hizketan ari nintzen. Apaiz baten kontuak kontatzen ari zitzaidan. Aspaldiko kontuak noski, bere mutiko denborakoak. Nola apaiz hark lehenbizi gogor tratatzen zuen, nola gero begi ona hartu zion, etab.

- Jarriko al dut hau? —galdetu nion.
- Uuuu! —kurrinka egin zuen—. Apaiza eta...
- Hura hila da, ordea.
- Hurrengoak ere izango dira...

— Etxe hartakoak? —galdetu nion. Eta agureak erantzun:

— Etxe hartakoak ez, baina seminariokoak. Berdin da.

ATAUN - GIPUZKOA

OTSAIKO OTSAIKO

Santa Ageda ondoko igandez, aterik ate eskean, haxe kantatzen da Ataunen:

— Otsaiko otsaiko. Nik otso bizia ekarriko. Limosnarik ematen ez badidazu, atea eta leihoak hautsiko.

Otsaiko hori otsailetik ala otsagitik ote dator?

JENTILAK

Antxina jentil zahar bat gaixotu zen eta menditik Agerre baserrira jaitsi zuten. Jentilak urrezko ohazala ekarri zuen. Agerreko etxeoandreak honi gehiago be-

giratzen omen zion gaixoari baino. Goizean jentila sendatu eta jeikitzerakoan, ohazala ohean josia zen. Tiratu eta urre puskak han geratu ziren, iltze ondoetan. Jentilak joatean esan zuen:

— Agerre Agerre den artean, ez da faltako irrikimarrarik.

Geroztik hala omen da «erre» horren kontua Agerren.

ZINGOLATZA

Beste jentil zahar bat su ondoan utzi zuten eta ipurdia erre zuen. Esaten omen zuen:

— Zingolatza, mingolatza, harri goriak ipurdia erredatza.

— Nork egin dik hori? —galdetu zion beste batek.

— Neuk neuri —erantzun zuen hark.

Besteak orduan:

— Heuk egin baduk, heuk eraman beharko duk.

ATAUNDARRAK NONAHI

Gipuzkoako batzuk Erromara joan ziren eta beltz bat ikusi zuten. Elkarri esan zioten:

— Hau ez duk, ba, Olaberrikoa izango.

Beltzak erantzun:

— Olaberrikoa ez, baina Ataungoa bai.

AZA HAUSTEA

Neska batek amari larritasunez esan zion:

— Ama! Gure aita leihotik baratzerara erori da.

Amak erantzun zion:

— Neska! Hark egingo zinan aza haustea!

ZINTZIBIRIN ZANTZABARAN

Ertzilegiko mutila hogeitun urtekin ere galtza gabe ibiltzen zen. Behizain zegoen eta uhuka eta zantzoka ari zen, esanez:

— Zintzibirin zantzabaran, erretirate pronto andrea-
rengana, ez duk gaizki izango nik hartzen dudana.

Mutila noizbait ezkondu zen. Orduantxe jantzi zitu-
tuen galtzak. Baina ez zuen emaztearekin lorik egin na-
hi. Amak azkenean hauxe esanda engainatu zuen:

— Katilu berritik esnea emango diat.

ZAKURRAREKIN BURRUKA

Mutil hau oso indartsua zen. Behin herrira ekarri
zuten eta zakur handi baten kontra burrukatzeko be-
rotu zuten. Mutilak zakurrari belauna erakutsi zion.
Zakurra handik hozkatzera zihoala, ahotik heldu eta
esku bakoitzean aho alde bat irekiz, jendeari hots egin
zion:

— Orain zer egitea nahi duzue?

MUÑO TRATULARIA

Muño tratularia zen eta Ordizian harategia zeukan.
Behin Altsasuko baserri batera joan zen, han idiak sal-

tzeko zeudela eta. Muñok etxeoandreaki esan zion:

— Idi hau izorraturik dago.

Toki onean jo zuen adarra. Emakumeak erantzun zion:

— Nik ez diat izorratu, nagusiak ere ez. Izorraturik baldin bada, Jainkoak izorratuko zian.

Muñok etxe hartatik aldegin zuen. Gero Patxi Handi koinatua topatu zuen, hura haizkorak saltzera joana. Hari trajea eskatu zion, aldatu zen eta berriz joan zen baserri hartara. Ikuilura joan eta esan zuen:

— Zer idi majoa!

— Majoa? —esan zuen etxeoandreak—. Lehen izan da probintziano marikoiren bat eta esan digu izorraturik zegoela. Nik esan diot guk ez dugula izorratu eta Jainkoak izorratuko zuela.

— Majoa, majoa! —Eta Muñok idia erosi zuen.

POR LITXARRERO QUE ES USTED

Muño Zaharra Barrankan zehar asko ibiltzen zen, trenez edo bizikletaz. Altsasura maisu batekin joan zen eta bizikleta trenean sartu zuen. Interbentorea heldu zen eta galdetu zuen:

— De quién es esta bici?

Inor ez zen hartaz jabetzen. Berriz eta hirugarre-

nez ere galdetu zuen eta Muñok erantzun zuen noizbait.

— De un servidor.

— Tienes que pagar tanto.

— Muy bien.

Interbentoreak papera egin zion eta Muñok esan zuen:

— ¡Qué poco! El otro día me cobraron más.

Interbentoreak orduan paper hura bota eta berria egin zion. Muño Zaharrak esan zion:

— Ahora por litxarrero que es usted, no le pago nada.

(Litxareroa lapur txikiari esaten zaio).

MUÑO SOLDADU

Muño soldadu zegoela, ezin zuen instrukziorik ikasi eta dorpeen batailoian sartu zuten. Patxi Handi koinatugaia bisitatzera joan zitzaion eta Muñok urrundik ikusi zuen. Orduan Muño sargentoarekin hitzeginik edo, bera jarri zen agintzen. Hurreratzean, Patxi harritu zen eta esan zion:

— Koño! Ataun guztia dorpeen batailoian hagoela eta orain instruktore?

LUTERO ZALDIAN

«Lutero» esaten ziotena zaldian zihoan Saltsamendin zehar. Usotara zihoan, baina apenas ezer topatzen zuen. Etxeruzkoan uso talde bat ikusi zuen zuhaitz gainean. Jaisten denborarik ez galtzeko, zaldi gainetik bertatik tiratu zien usoei. Zaldia ikaratu zen eta pagadian behera abiatu zen galdu-gordean. Lutero gordetzat baino gehiago galdutzat jotzen zuen bere burua. Tarta baziren pago adarrak oso behean eta ahal bezala libratzen zen haietatik.

— Hementxe geratuko nauk zintzilik! —pentsatzen zuen, gero eta izutuago.

Ahalak egiten zituen, baina ezin zuen zaldirik menderatu. Menderatzen hasteko tarterik ere ez zuen, adarrak apartatzen nahiko lan baitzuen. Lutero harriturik zegoen, zaldi hark ez baitzuen sekula halako erreakziorik izan. Halako batean zaldia berez geratu zen, leherturik. Begiratu zuen eta nola ez zuen, ba, korrituko zaldiak? Eskopeta besoan zintzilik zeukan, zaldia tripean klik-klak jotzen zuela.

LAZKAOKO ANTZAR BATI

Lazkaotarrei goitizenez «antzarrak» esaten diete. Behin San Gregorion kartetan ari ziren, lazkaotar bat

tartean zela. Tutean ari ziren eta hargatik edo horregatik erronkan hasi ziren. Halako batean Nikolasek bertso hau kantatu zuen:

**Antzarra, al zabilta
erabat poztuta
hemendik joan nahiean
bazterrak nahastuta
Abiatzen bazera
gu danoi ostuta
bialduko zaitugu
hegoak moztuta.**

ZIZTRU

«Ziztru» mutil koxkorra xelebrea omen zen, apaizei hika egiten zielako. Behin hiru edo lau apaiz handik pasatzen zirelarik, batek Ziztruri zerbait esan zion eta honek hika erantzun.

— Apaizei hika? —agiraka egin zion norbaitek mutikoari.

— Ez. Nik apaizei zuka egiten diet —esan zuen Ziztruk.

— Horri nola egiten diok, ba, hika?

— Hori frailea delako —erantzun zuen Ziztruk.

PATER AIAKOA

Ataungo Aiako apaiz bati «Pater» esaten zioten. Zer zioke Paterrek? Ikusi al duk Pater? Eta horrela. Behin Aiako sakristaua joan zen Paterrentzat dirua ekartzera. Hilekoa kobratzeko edo horrelako zerbait aginduko zion apaizak sakristauari. Sakristauak bidean nonbait jokatu eta dena galdu zuen. Gero apaizari esan zion:

— Jauna, lapurrak atera zaizkit bidean eta dena kendu didate.

— Bat ala gehiago?

— Bakarra zela uste dut.

— Nolako tankerakoa zuan?

— Ez dakit, ba... —erantzun zuen sakristauak, zerbait asmatu ezinez.

— Ez al zuan, ba, halako luze samar horietarikoa izango?

— Bai, halaxe zen!

— Ah, bazekiat! —hotsegin zuen Paterrek—. Txotako bastoa! Ni ere hamaika aldiz izorratu nik horrek.

Geroztik bada Ataunen esaera hau: «Txotako bastoa, Paterra izorratu zuena». (Txotako bastoa: txanka bastoa edo sota bastoa).

AULESTIA - BIZKAIA

AZERIA, ZOZOA ETA TXAKURRA

Azeri gaizto bat zebilen Aulestiko Urriola auzotegian. Txilinerrota zeritzan txakurrak gorroto handia zion, baina alferrik. Ezin zuen harrapatu. Udaberri batez, zozo batek hiru umeko habia zeukan eta pozik zebilen kantari. Azeriari zozokume haiek jateko gogo sortu zitzaion eta zuhaitz azpitik hots egin zuen:

— Hi, zozo! Botaidak ume bat.

— Ez. Hiru ume polit bakarrik ditut eta ez dizut botako —esan zuen zozoak.

— Kontuz gero, buztanaz jota botako baitut zuhaitza.

Zozoak, ikaraturik, ume bat bota zion azeriari, baita ederki irentsi ere honek. Biharamonean berriro azeriak:

— Hi, zozo! Botaidak beste ume bat.

— Ez, bi bakarrik baititut.

— Kontuz gero, buztanaz jota botako baitut zuhaitza.

Zozo gaixoak bigarren umea ere bota egin behar izan zion. Eta hirugarrena ere berdin hurrengo egunean. Zozoa oso triste geratu zen. Txilinerrota handik iragan zen eta galdetu zion:

— Hi, zozo! Zergatik hago hain triste?

— Hiru ume eder eduki ditut eta hirurak jan dizkit azeriak —erantzun zuen zozoak.

— Egunen batez harrapatuko diagu, ba, azeri gaizto hori —esan zuen txakurrak.

— Bai, zuk horixe esaten duzu beti, baina ez duzu inoiz hiltzen —negar egiten zuen zozoak.

Txilinerrotak orduan esan zuen:

— Gazta eder bat lortzen badidak, berehalaxe hilko diat.

Handik laster, Urriolako emakumetxo bat plazara zihoan, otzara bete gaztaz. Zozoa emakumearen ondoan, sasi artean, kantatzen hasi zen. Zekien gauzarik politena kantatzen zuen. Emakumeak hain txori kantaria harrapatu nahirik, otzarea lurrean utzi eta atzetik jarraitzen zion. Zozoak hurreratzen utzi zion, baina geldi-geldika, tak urruntzen zitzaion eta emakumea atzetik. Halako batean, zozoak ihes egin zion eta Txilinerrotari diotsa:

— Txilinerrota! Urriolako ermita ondoan daukazu otzare bete gazta.

Txakurrak tripakada handia egin zuen eta lurrean

etzan zen, hil itxuran. Eta zozoari diotsa:

— Hi, zozo! Hoa eta esaiok azeriari hemen nagoe-la hilda.

Azeria etorri zen eta poliki-poliki hurreratu zitzaion txakurrari. Lehenbizi usain egin zion eta gero txiza egi-ten hasi zitzaion burutik behera. Orduan Txilinerrotak grausk barrabletatik heldu zion eta halaxe hil zen azeria.

AULESTIKO ERMITAK

Aulestin sineskera zaharra da mendietako ermitak lamiak uxatzeko eginak zirela. Bada Aulestin hainbat ermita. Zuberoko auzategian, Jose Uriarteren emazteari lamia bat agertu zitzaion eta esan:

— Maria la Grazia, non dun nire orrazia? Ekartzen ez badidan nire orrazia, galduko haut hi eta hire askazia.

AZPEITIA - GIPUZKOA

APUSTUTIK ETXERA

Behin Keixeta eta lagunak Azkoitiko apustu bate-
tik etxerantz zetozen. Uzkudunen ilobak Keixeta ka-
mioiko kabinan hartu zuen eta atzean mutil gazte tal-
de bat. Loiolan zehar zetozela, abiada izugarria zeka-
rren kamioiak. Keixetari behintzat hala iruditu zitzaion.
Azpeiti ez zegoen urrun eta gutxiago abiadura harekin.
Baina Keixeta bildurtu zen eta esan zuen:

— Uzkudun! Uste dut berehalaxe iritxiko garela,
baina nahiago nuke iritxia banengo.

KONFESOREAREN HATSA

Bi azpeitiar konfesatzera joan ziren eta hain zuzen argi gutxi samar zegoen une hartan, aitortegi inguruetan beti ere ez da argi gehiegirik izaten baina. Itxura denez, apaizak ez zuen ahotik usain gozoeirik botatzen. Batzuk arnasatsa, beste batzuk kiratsa eta beste batzuk hatsa esaten dutena. Arnasan usain txarra nolana ere.

Bietariko bat konfesatu zen eta beste lagunak irteeran galdetu zion:

— Zer moduzko konfesoera duk?

— Ez zekiat, mutil —erantzun zuen konfesatu berriak—. Ilun ziegoan eta ez diat ondo ikusi, baina uste diat ipurdiz gora dagoela.

KASKANTE ERREZILEN

Azpeitiko «Kaskante» deritzanak ere hamaika kontakizun utzi du. Behin Kaskante, Ernioko festara joateko asmoz, Errezilgo elizara meza entzutera sartu zen. Garai haietan hilaren igande batez, San Martinen argiarentzat dirua eskatzeko ohitura zen Errezilen. Mutiko bat bere platertxoarekin, tintilin-tintilin pasatzen

zen elizan zehar, esaten zuelarik:

— San Martinen argiarentzat! San Martinen argiarentzat...!

Kaskante atze samarrean zegoen eta mutikoa horretan hasi zenean, alboko gizonari galdetu zion:

— Zer esaten dik horrek?

— San Martinen argiarentzat! —erantzun zion gizonak. Mutikoa inguratzean, Kaskantek deitu eta esan zion:

— Hi, mutiko! Esaiok San Martini egunez ez dela argirik behar eta gauzez lo egiteko.

DEABRUREN OGIA

Gorago aipaturiko «Deabru» famatua, igande batez, Donostiako taberna batera sartu zen gosaltzera, lagun batzurekin. Ordurako okinak (ogigileak) igandea jai egiten hasiak zeuden. Beraz, bezperako ogia jan beharra zegoen, gaur ere lekurik gehienetan bezala. Deabruk zerbaitegatik zeukan goitizen hori eta gogoratzen zitzaiona botatzeko trabarik ez zen haren mihian. Ogi gogorra zela ohartzean, neskameari deitu eta galdetu zion:

— Aizu neska, ogi hau egin zuen okina hil zela zenbat urte dira?

KRISIS ONGI ETORRIA

Hirurogeita bat inguruko krisis garaia zen. Ahanztziko Gregorio goiz samar zetorren feriatik bueltan etxera. Auzoko gazte batek galdetu zion:

— Zer moduzko feria zegoen?

— Feria kaxkarra, baina pozik netorrek —erantzun zion Gregoriok.

— Zer, ba?

— Krisis hau baserriraino ere helduko dela jakin diat.

— Eta?

— Ba, dirua lehen baino beherago izaterik ez daukagunez gero, lana kentzen badigute, ba al dakik zer diferentzia?

ARRONA PRESAKA

Arrona eta beste Azpeitiko tabernari bat lagunak ziren, baina bai noiznahi elkarri adarra jotzekoak ere. Tabernariak Azpeitiko lehenengoetako kamioi haundi bat zeukan. Garai hartako gehienak bezala, motel samarra noski.

Behin Arrona Azkoitik Azpeitirantz oinez zetorrela,

han azaldu zitzaion atzetik bestea, bere kamioi haundiarekin. Arronaren pareira heltzean, geratu eta:

— Sar hadi! —esan zion.

— Ez! Presaka nauk! —erantzun zion Arronak.

ERREGEETAN SINESTEA

Bazen mutilzahar bat, erreketea izanez gainera, sei urte inguruko semedun lagun bat zeukana. Lagun hura bere mutikoarekin zihoala, mutilzaharrari tonto samarra ote zen iruditu zitzaion. Burla egin nahirik, aitari esan zion:

— Hire seme horrek ez dik argi itxura haundirik. Hamalau urtekin ere sinestuko dik horrek erregeetan.

— Harritu egiten al haiz? —erantzun zion mutikoaren aitak—. Hik hirurogeirekin ere ez al duk, ba, sinesten?

ELURRETAN APAIZAK

Biak betaurrekodunak eta, beraz, ikusmen gutxi-koak ziren. Igande batez tiroplatoa zen Azpeitin eta

Landetatik herrirantz zetozela, Kaskantek betaurreko-dunei galdetu zien:

— Nondik zabiltzate?

— Hor izan gaituk arratsaldeko tiplatorako izenak ematen.

— Zuek tiroplatora? —hotsegin zuen Kaskantek—.

Elurretan apaizik ez baitzenukete ikusiko!

(Garai hartan apaizak oso beltz ibiltzen ziren).

BAIGORRI - NAFARROA BEHEREA

MARIA ETA PUTZA

Urdos Jauregiko Jean Pierrek Maria Elixaga ekar erazi zuen bere etxera, lanera. Maria matalas egilea zen. Matalasa oheko prenda bat da, ilez egina eta norberaren azpitik jartzen dena. Goizeko lanak egin eta bazkaltzen ari zirela, nonbait usain berriren bat somatu zuen etxeko nagusiak eta esan zuen:

— Maria! Zuk putz egin duzu.

— Ez, ez! Ari, ari! —erantzun zuen Mariak.

DUBLEX ETA KATTALIN

Baigorriko artzainek beren bildotsak Kattalin Lefur-i saltzen zizkioten eta sasoi ondarrean (azkenean) kobratzen zituzten denak batera. Harispek behin Dublex igorri (bidali) zuen Kattalinengana, bildots diruen bila. Dublexek esan zion:

— Erran, Kattalin. (Aizan, Kattalin). Harisperen partez etorri naun, sasoi amaitu baita. Bildots diruak nahi lizkiken.

— Ez al zian beste gizonik komisio hori egiteko? —galdetu zuen andreak.

— Bai, bilatuz atxemango (aurkituko) zinan. Baina zuentzako ni ere aski naizela pentsatu din.

BUHAMEEN OTOITZA

Buhameak edo ijituak. Hona hemen Baigorriin eza-gutzen den buhame edo ijitu otoitza:

— Jauna, ez dizut aberastasunik eskatzen, baina ezar nazazu aberats baten aldean (ondoan).

LABORARIA ETA EIHERAZAINA

Baigorriko laborari (nekazari) bat egoitzaz edo etxez aldatzera zihoan. Etxea aldatzean, eihera (errota) ere aldatu beharra zuen. Herri batean honenbeste eihera baldin badira, bakoitzak hainbeste etxe hartzen ditu. Beraz, etxez aldatzean, eiheraz eta eiherazainaz (errotariz) ere aldatzea tokatzen da. Hala behin, hori egitera zihoan laborariari lagun batek esan zion:

— Eiheraz aldatuko haiz, baina ez ohoinez (lapurrez).

KONKORRA ETA OKERRA

Behin Martin konkorra goizean goiz Baigorriko karrikan (kalean) gora zihoan. Konkorra bizkarrean konkorra duena da. Kaiet okerraren (begibakarraren) etxe ondoan pasatzean, hau atean zegoen eta esan zion:

— Oh, oh! Martin! Goizik goizik kargaturik.

— Bai, bai! —erantzun zuen konkorrak—. Goiz izan behar dik, ez baituk leiho bat baizik irekirik.

BERA - NAFARROA

AHUNTZEK PRESONDEGITIK IHES

Berako herri lurretan edo herri basoetan ezin zuten ahuntzekin gauza onik egin. Behin hiru ahuntz harapatu eta preso sartu zituzten udaletxean, denen eskarmentagarri, gero ospitalera ematekotan. Feliziano Maritxek honako bertso hauek kantatu zizkion bere suhi Anttoni, Berako idazkariari:

**Ahuzketari horiek joan dira herritik
ekarri omen dituzte Larungo harritik.**

**Akerra ere saltoka etorri menditik
gero libratu ditu hark presondegitik.**

**Probiak poz jarioz bazebiltzan dantzan
haragia debalde jateko esperantzan.**

**Baina horrelakorik pasatuko etzan
kartzelako atia gogor egon bazan.**

— Ea Beran ere horixe gertatzen den! —esan zuen Maritxek.

Baita gertatu ere. Biharamon goizean, inork ez jakin nola, ahuntzak falta ziren.

EZ DAGO ORAIN DONTZEILARIK

Honelako koplak kantatzen ziren Beran. Lastima galduz doazela.

**Hamazazpi serore eta bost emagin
denbora gutxi barren sartu dira sorgin.
Hamabi, hamairu, hamalau urtetan
dontzeilarik ez dago oraingo nesketan.**

Badira beste kopla bizi hauek ere:

**Ziburutik Sarara bi neska faltatu
arraiez kargaturik Oletan paratu.**

**Bata Maria motxa, bestea motela
haiek para omen dute Oletan bordela.**

**Sasi txoko guztietan eginikan gela
gero erranen dute dontzeilak direla.**

(Bordela edo burdela putetxea da).

Bertso hauek Ziburun eta Saran inork ez dakizki.

Beratar batek zituen gogoan. Oleta auzategi bat da, Beratik mugaz beste aldera dagoena.

Hari honi jarrai, beratar bat gurdira igon eta sermoi gaziak egin zale omen zen. Behin neska baten fama txarra honela predikatu zuen:

— Eliztar maiteok! Berako neska batek hogeita hamar ute bete behar eta eskritorioa itxi behar.

Eta bigarrenez ezkontzeko zen gizon batengatik:

— Beratar maiteok! Agure batek eskritorio berria agindu du lapitz zaharrarentzat.

BERRIATUA - BIZKAIA

PASTOR URRUSTI

Pastor Urrusti morroi zegoen baserri batetan. Gau batez etxeko andrea haurra izateko jarri zen. Morroiari agindu zioten mediku bila joateko. Pastorrek goizaldean jo zuen medikuaren atea eta honek esan zion:

— Baina ordu hauetan nola joango nauk, ba, Pastor?

Pastorrek orduan esan zion:

— Hori galdetu berorri! Nahi badu etorri, nahi ez badu ez etorri, berdin dio Pastorri.

URKIABASOKO KAJAKOA

Morroi zegoen beste etxe batetan ez zuten haurrik eta «kajakoa» edo semeordea hartu zuten. Igande batez Pastorri herrian galdetu zioten:

— Zertan da, Pastor, Urkiabasoko kajakoa?

Eta Pastorrek berehala:

— Urkiabasoko kajakoa, nolako-halakoa, oin beteko lepoa eta arra beteko ahoa: etengabeko jaua! (garraisia, eskandalua).

PASTORREN ONDASUNAK

— Zer moduz? —galdetu zioten beste behin Pastor morroiari eta hark erantzun:

— Bost mila ahuntz ditut kanpoan, bost mila erreal bankuan. Papera, zilarra eta urrea. Pastor ez uste denik pobrea.

ERRAPEA ETA ERLEA

Bigai bat txahala egiteko zegoen eta errape handia zeukan.

— Baina haizea du asko —esan zuen ugazabak.

Orduan Joan Arraik esan zuen:

— Haizeak, batzuk dira bustiak, beste batzuk lehorrak. Neu nago etxean ikusia: bigai ederra hasi, ama onaren umea, upela baino errape handiagoa eta erle bat mantentzeko esnerik ez.

ARRAZA EDERRA

Gizon batek txahal ederra zeraman Ondarrura. Manuelek «Hau txahala» esatean, besteak berez izan zela ederra esan zion. Orduan Manuelek esan zion:

— Berez? Nahiago nuke arraza hori gurera ekarriko bazendu.

BIGARREN INDIZIOA

Altzuk, Arregi bertsolariaren aitak, lehenengo indizioa hartu zuen. Medikuak animatzeko esan zion:

— Altzu, gaur bat eman dizut, bihar bestea.

— Konforme! —esan zuen Altzuk—. Baina gaur sartu didazun zuloatik berriro sartzekotan.

KONFORMIDADE ONA

Berriatuar bat Amerikatatik etorri zen. Urteetan aurrera zihoan, baina neska gazte batekin ezkontzea lortu zuen. Ezkondu eta gerora lagunek esan zioten:

— Zer esaten genian guk? Andre gaztegia zela hiritzat. Ikusten al duk nola dabilen orain besteekin?

— Baita neurekin ere! —erantzun zuen amerikano zaharrak.

DIMA - BIZKAIA

GARAI HARTAKO EZKONTZA

Dimako etxe batetan ama-alabak bizi ziren. Ama nahiko urtetsua zen. Behin mutil bat agertu zen nobio-tzat, neskak dirua zeukalakoan. Susmoa zuen mila dukat ote zituen. Auzoan amari esan zioten:

— Zure alabarentzat han dago lekua, mila dukat emanda.

Amak erantzun zuen:

— Ai mila dukatek hots handia! Badauzkat hamaika ehunekotxo, hamaika zapitan batuak.

«Ehunekotxoa» ehun errealekoa zen. Norbaitek esan zuen:

— Ea atsotxo horrek hamaika ehun hogerelekoko dituen eta ez hamaika ehunekotxo.

Mutilaren etxekoek eta hauen bitartekoek erakusteko eskatzen zioten, baina hark ez zituen erakutsi nahi. Ezkondu eta gero agertu zituen bere hamaika zapi-txoak. Susmoak ustel geratu ziren. Ehun errealekoak edo ehunekotxoak ziren eta ez ehun hogerlekokoak. Baina orduan ezin neskarik etxetik bidali. Halaxe burutu zen garai hartako ezkontzetarik bat.

PERU ETA MANTONI

Peru eta Mantoni ezkongai zebiltzen luzaro eta ezkontzea ipini zuten. Andregai begibakarra zen eta bere zintzoan mutilari esan zion:

— Peru! Oraintxe begiratu gero niri begietara.

Peru lotsa zen neskari begira begiratzen eta hala konformatu zen. Ezkondu eta denbora luzera, senar-emazte gazteak arta jorran ari ziren. Halako batean Peruk esan zuen:

— Ene, Mantoni! Zuk begi bat bakarrik daukazu.

— Ez al nizun, ba, esan? —esan zion Mantonik.

EZKONBERRIEN LANAK

Bi koinata gazte Dimatik Durangora oinez joan zirean, garai hartan ohi bezala. Bidean koinata batak besteari galdetu zion:

— Ba al dakarzue familiarik zuek?

Besteak erantzun:

— Nola ekarriko dinagu ba, nire gizonak ez baitaiki ezer? Ikutu ere ez dit egin.

Bueltan etxean, familiaren zain zegoen andre gazteak gizonari esan zion:

— Ba al dakik koinatak zer esan didan? Haren gizonak ez zekik ezer.

Bi gizonak ikazkinak ziren. Biharamonean basoan ikatz lanean ari zirela, batak besteari esan zion:

— Aizak, zerbait jakin beharrean hagoela uste diat. Ezkontzako zera esan nahi diat.

Koinatu ez jakina asuntoaz jabetu zenean, berehalaxe abiatu zen etxera. Lan berria probatu zuenean, lanak ziren hura basoan edukitzen, noiznahi alde egiten baitzuen etxera. Beste koinatua lamentatzen zen:

— Ikatzak amaitu arte esan ez banio!

ARGIA ETA TXAHALA

Dimako baserri batean behi bat txahala egiten ari zen. Etxekoak eta auzokoren batzuk ere han ziren behiaren inguruan. Eta hain suertez, argia orduantxe joan. Etxekoandrea Eusebiorengana joan zen arin, argia emateko eskatzera, hura baitzen emalea eta kentzailea. Emakumeak esan zion:

— Emazu argia, mesedez, behia txahala egiten daukagu-ta.

— Behiak ez din txahala egiteko argirik behar — erantzun zion Eusebiok—. Behar izan balu, Jainkoak atzean kandela bat ipiniko zion.

MUTILA, SUGEA ETA MIZPIRA

Dimako Bargondia auzategiko Aldekoetxen, bi anai bizi ziren gurasoekin. Uztaila zen. Gariak soroan metaturik zeuzkaten eta, eguraldi ona ikustean, anai batak besteari esan zion:

— Gari meta bat joko al diagu?

Besteari ondo iruditu zitzaion eta gariak zabaltzen hasi ziren. Anai batak besartekada bat hartu zuen eta esan zuen:

— Hi! Sugea hemen!

Besteak: —Eman makilada bat eta hil.

Batak: —Ez! Hori ere Jainkoak egina duk eta bizi dadila.

Besteak hala ere makila bota eta buztana eten zion sugeari.

Gero anai bata soldadu joan zen, Afrikaldera eta gerrara. Gabonak heldu ziren eta hain zuzen, Gabon egunean bertan lizentziatu zuten. Etxeaz oroitzen zen, baina ez zegoen inola ere Gabon afaria etxean egite-rik. Gizon bat inguratu zitzaion eta esan zion:

— Aldekoetxen mizpira gorriak hostoa fresko.

Mutilak esan zion:

— Hik nola dakik, ba, hori?

Ezezagunak: —Jakinda. Zenbat estimatuko huke gaur gauez etxean afaltzea?

Mutilak: —Mundu guztiak baino gehiago, baina ezin dut.

Ezezagunak: —Bai, heuk nahi baduk.

Mutilak: —Nola?

Ezezagunak: —Jar neure bizkarrean. Arrañumendin laprastadak eta irristadak sentituko dituk, baina ez Jesusik esan.

Bazihoazen eta Arrañumendin mutilak «arre dea-bru» esan zuen eta berehala Baltzolako kobetan aurkitu ziren.

— Barrura! —esan zuen ezezagunak.

— Ni ez! —erantzun zuen mutilak.

Baina sartu beharra izan zuen. Barruan ikatz pila bat zegoen eta ezezagunak esan zion:

— Hark ezak apur bat.

— Ez. Hori gure aitak ere egiten du —esan zuen mutilak.

Hala ere, hartu eta kanpora irtetea, urregorria zen hura, barruko ilunean ikatza zirudien arren. Mutilak berriro ere sartu eta gehiago hartu nahi zuen, baina ezezagunak esan zion:

— Ez. Orain ez. Gizon bat zegok han lo, hartzaren gainean.

Agurtu eta banatzean, ezezagunak esan zion:

— Hi, gogoratzen al haiz nola, gari zabaltzen ari zinetela, suge bat aurkitu eta hire anaiak makilada batez buztana eten zion? Begira hona. Hatzamar txikia falta zaidak. Onik egin nahi ez baduk ere, txarrik ez egin. Eman hauxe anaiari.

Ezezagunak gerriko gorri bat eman zion mutilari. Honek Gabon gauean Aldekoetxeko atea jo zuenean, etxeko guztiak harriturik eta pozik zeuden. Soldaduak beste anaiari esan zion:

— Lagun batek hiri hauxe emateko esan zidak.

Besteak esan zuen:

— Nik zertarako diat hori? Lotu ezaiok mizpira horri.

Soldaduak gerriko gorria mizpirari lotu zion eta bat-batean zuhaitza gerritik atera zen eta eraman zuen.

— Leku onetik apartatu haiz! —esan zion anai bat besteari.

ELGETA - GIPUZKOA

TOMAS ZORO

Bazen elgetar gizajo samar bat «Tomas Zoro» deitzen ziotena. Baina bai gizon kuriosoa ere. Herriko azpi guztiak berak ateratzen zituen, etxerik etxe ibiliz. Egunean sei erreal eta jana zen haren soldata. Baina ez us-te edozein diru hartuko zuenik. Alfontso XIII-rena bakarrik hartzen zuen. Norbaitekin gurutzatzean, beti eskuinetik pasatu behar izaten zuen. Baten bat eskuinetik pasatzen hasten bazitzaion, bertan etzan eta ez zion uzten. Bakarrik bizi zen. Elgetan ogia izan arren, Erroterditik, ia Bergaratik, ekartzen zuen beti.

Arropak berak josten zituen, baita garbitzen ere. Baina ez besteen ikuztegian (labaderoan), Isats-ko errekan baizik. Beti zuri jantzita ibiltzen zen, izarekin (maindireekin) eginik.

Nola? Lehengoa ipini, ganean izara eta hala lehen-goaren neurrira ebakitzen zuen oihala. Elizan bere jarlekua zeukan eta hura okupatuta baldin bazen, kanpora aldegiten zuen.

Gehienez errespetatzen zioten. Don Bitorio medikuaren andreak egurrak zehatzera eramane zuten behin. Gero kazuela bat jarri zuten denentzat eta Tomasek berak bakarrik jan zuten dena, esanez:

— Nire aurrera datorrenik ez da gertatzen.

Emanikorik ez zegoen hari har eza. Medikua-
ren andreak bi praka pare eman nahi zizkion. Baina bestela ez baitzizkion hartuko, huskeria baten prezioa jarri zion. Orduan Tomas Zorok esan zuten:

— Karanba! Neu estu bizi naizela, baina gizonaren prakak saldu behar dituen ere ez da lasai bizi.

Bazeukan pitxer txiki-txiki bat, iturritik ura ekartzeko eta abar. Baziren Elgetan hiru iturri elkarren ondoan eta hark beti erdikotik hartzen zuten ura bere pitxer txikiaz. Amak andre bati diru pixka bat utzi zion, hari laguntzeko. Behin andreak Tomasi diruak amaitu zirela jakin erazi zion:

— Zer egingo diogu, ba! —esan zuten Tomasek.

Handik egun batzutara, etxe hartara azpiak ateratzera deitu zioten. Tomas azaldu zen eta esan zien:

— Hara, ba. Etorri naiz, baina ez dut lanik egingo. Zuek jakingo duzue zergatik.

ANEGA ZAKUAREKIN DURANGORA

Elgetako Agerre baserritik aita-semeak Durangora kargaturik abiatu ziren. Aitak anega bat baba zeraman eta semeak anega erdi. Elgetatik Durangora kilometro pila dago. Garai haiek. Elorrioko San Agustin parean semeak esan zion:

— Aita, atsedeen egin behar dugu.

— Atsedeen hemen? —hotsegin zuen aitak—. Hemen atsedeen egitekotan, beste anega erdi hartuko nian.

ANGIOZARKO GEZURRAK

Lopez ehiztari handia omen zen. Ehiztaria ez daki-gu, baina gezur asmatzaile handia. Angiozarkoa izan arren, Elgetan entzun genituen honen kontuak. Lopezek kartutxo oso onak omen zeuzkan, kondeak emanak. Hiru-lau urtetan gorderik eduki zituen, erakusteko bakarrik. Behin oskila-soak artoa jaten somatu zituen. Atzetik joan zen, baina ezin harrapatu. Kartutxo normalak atera eta on horietarikoak sartu zituen. Tiro bat bota zuen eta oskila-so bat behera. Gerotxoago beste bat ere behera erori zen. Gero bat adar gainean eguzkia hartzen omen zegoen eta hura ere behe-

ra. Hura kartutxoa! Bide luzean, banan banan, denak behera bota omen zituen.

Beste behin oilagorretara joan zen gauez. Oilagor asko omen zebilen. Gau ilunetan hego hotsa entzun zuen eta beste gabe tiratu zuen. Gero zarraparra bat izan zen eta pentsatu zuen: «Jausi dituk». Joan eta ezer ere ez. Lumak bai, baina oilagorrak falta. Gauda bertan pasatu zuen. Goizean, argitu zuenean, hamabi oilagor ia bere hankapean topatu omen zituen.

GARIZKO PERDIGOIAK

Lopez beti bezala oilagorretara joan zen. Aurrean dena oilagorra zeukan. Hasi zen tiroka eta bat ere bota ez. Kartutxoei begiratu eta ez zeukaten perdigoirik. Orduan kartutxoak gariz betetzea pentsatu zuen. Munizio berria eskopetan sartu eta harrizko lapikoan proba egin zuen. Tiratu zion eta txorizoak alde batera, urdaiak bestera eta hala desegin omen zen lapikoa. Txorizo eta urdai haiek alferrik galtzea penagarri izaki, pixka bat garbitu eta jan zituen. Baina bien bitartean, oilagor aluek gari aleak jan eta ihes egin omen zioten.

PAGOAK BAI NAFARROAN

Lagun batzuren artean pago hautua (berriketa) zerabilten. Handiak, txikiak eta abar. Lopezek esan zuen:

— Pagoak bai Nafarroan. Tiroa bota eta usoak goian zorriketan. (Zorriak kentzen). Tirorik entzun ere ez.

ARAKAMA APAIZA

Arakama apaiza Uberan zegoen. Elizan hontzak ikusi zituen eta harrapaketa antolatu behar zela. Goiz batez lagun talde batek hala egin zuen. Iluntzean moloekin salda egin eta denak haserretu omen ziren. Apaizak ere burrukan.

Uberako baserri bateko esnetari bat bere esneekin zetorren estartan behera. Honetan erbi bat bidean ikusi zuen. Erbiari segika hasi zen gizona. Behetik gora Arakama apaiza zetorren eta erbia sotanapean harrapatu zuen. Norena zen? Elgetan galdetu.

ELORRIO - BIZKAIA

HIK JANGO, NIK JANGO

Ospitaleko Manuel mutiko pila bat inguruan harturik, eguberriz, urte berriz eta erregenez, aterik ate ibiltzen zen. Ez ziren ate guztietara joaten, aberats bazturenara baizik. Pobreen atean apenas baitzegoen ezer.

Aberatsek ere ez ziren eman zale. Baina Manuelek eta mutikoez eman arte han segituko zuten. Hauxe kantatzen zuten:

— Aginaldo, aginaldo, hagina daukanak jango, ez daukanak ez jango. Hik jango, nik jango. Nik ez jango, hik ez jango, hik jango, nik jango, hik ez jango, nik ez jango...

Honela jarraitzen zuten atea edo leihoa ireki arte. Intxaurrak eta horrelakoak botatzen zizkieten eta beste ate batera.

SISTO DENDARIA

Sisto dendariak 157 kilo zeuzkan. Ehun eta berrogeita hamazazpi. Haren larruak jaten ere ez zuen gutxi behar. Behin Sistok eta Bernardinok berrehun marraskilo jan zituzten. Bernardino oraindik bizi da, bere laurogeita zazpi urterekin. Bernardinok hogeitamar jan zituen. Beste guztiak Sistok irentsi zituen. Ehun eta hirurogeita hamar eta ez nolana hikoak, marraskilo handiak omen baitziren. Bernardinok botila bat ardo edan zuen eta Sistok sei botila. Hala ere Sistok berak etxera ekarri zuen Bernardino. Ez da gezurra izango, Bernardinok berak kontatua baita.

Hori gertatu zen garaian, funtzionarioek (goardia zibil, foral eta abarrek) egunean sei erreal irabazten zuten. Erreal bat jasotzeko eskakizuna heldu zen eta kontzejal batek esan omen zuen:

— Erreal bat altzatzekotan, neu jarriko nauk agoazil.

Garai haietatik hauetara bada alde pixka bat.

APOA LAPIKORA

Bazen neskazahar bat, guztiz sano ez zegoena. Behin indabak edo babarruank egosten ari ziren lapiko-

ra (pertzera) apo bat bota zuen bizi-bizirik. Apoa edo zapoa. Eguerdian, etxeoak bazkaltzeko eseri zirenean, hura odolkia agertu zena lapikoan.

Beste behin aizpira edo oremahaia bizkarrean harturik zihoan. Aizpira hori ogia egiteko mahai-armario gisako bat zen. Aizpira erre kara bota zuen eta bera gainean, itxasuntzia zela eta. Eskerrak atera zutela.

Behin Bernardinok oilagor bati eskopeta txikiaz zazpi tiro bota zizkion alferrik. Neskazaharrak esan zion: — Bernardino, oiloa bezalako hemendixe pasatuda.

Gero etxeo gizon zaharrak berriz Bernardinori esan zion:

— Ba al dakizu zer? Gurteunaz (gurdiaren ardatzaz) apuntatu eta joko duzu.

MUTIL ZAHARREN JOLASAK

Hogeita bederatzi mutilzahar batzen ziren. Bat gaizto samarra omen zen eta behin bere burua hiltzat egin zuen. Lagunak larri zeuden, hala sinetsirik. Batek, ordea, txingor (kazkabar) palakada bat kaletik ekarri eta golkotik sartu zion, negutea baitzen. Laster piztu omen zen mutila: «Bizirik zegok!» esan zuten eta aurrerá errondariak.

EZKIO - GIPUZKOA

ABARKEI ANISA

Jose Lopetegi egurretara joan zen idiekin Atxur-zara. Beste ezkiotar bat ere han zen idiekin garotara joana. Baina gero girorik ez eta biek egurretan egin zuten. Lopetegik bazkarizat ogi koskor gogor bat eta zahtoa eraman zuen. Besteak bazkari hobea eraman zuen eta handik jan zuten biek. Arratsaldean berriro egurretan ekin ondoren, iluntzean Lopetegik esan zion:

- Goazen tabernara. Afaldu egin behar diagu.
 - Bustita negok, ordea. Aldatu egin behar diat
- esan zuen besteak.

Biek ederki afaldu zuten. Azkenean Lopetegik abar-ka bakoitzari anis kopa bana bota zion, esanez:

- Hauek ere zerbait merezi diate.

Eguerdirako ogi gogorra eta gauean abarkei anisa. Hura zen martxa hura.

ZUMARRAGATIK EZKIORA

Behin Lopetegi Zumarragan ederki kargatu zen eta azkenean norbaitek taxisean bidali zuen Ezkiora. Etxera irixtean, esnatu zen eta taxistari esan zion:

— Zenbat da hau?

Taxistak: —Ezer ere ez. Etortzea ordaindurik dago.

Lopetegik: —Eta joatea?

Taxistak: —Joatea debalde da.

Lopetegik: —Orduan goazen atzera (berriz).

ASTOA ETA ASTODUNA

Lopetegik asto begibakarra zeukan. Behin, gauez, herritik etxeruntz zihoan, astoa limonadaz eta abarrez kargaturik. Bera ere ederki kargaturik zihoan asto gainean. Halako batean atzeruntz erori zen. Hankak otzaretan (saskietan) gatibu geratu zitzaizkion eta han zegoen gizona, burua behean eta hankak goian. Norbaitzuk pasatu eta hankak libratzen hasi zitzaizkionean, Lopetegik esan zien:

— Zer behar duzue hortik? Astoa larrean ari da eta ondo dago. Ni ere ez nago gaizki.

SISTIMA MODERNOAK

Lopetegik bere asto begibakarra behin soroan lotu zuen, taket baten inguruan. Baina astoak buelta txikia harrapatzen zuela iruditu zitzaion. Nola gehitu zirkunferentzia hura? Lepotik soka kendu eta buztanetik lotu zion. Horrela gainera astoaren gorputzaren luzera ere irabazten zuen.

Asto begibakarra, ordea, noizbait erren jarri zen. Hanka bat erren zeukan. Lopetegik piper pote bat jantzi zion perratzat eta alanbre batekin goian lotu. Hartatik akabatu zen asto gaixoa. Gero Lopetegik ahariari aparailuak bizkarrean lotu eta hala ekartzen zuen bellarra. Aharia zamari.

GOBERNADOREA

Santa Lutzia gauzez ederki animaturik zeuden tabernan. Atanaxiok esan zuen:

— Pianoa balego!

Lagunek esan zioten:

— Badakigu, ba, non dagoen.

Bazen han piano bat eta Atanaxio jotzen hasi zen. Mozkorturik zegoen eta ez zen han hotsik falta. Atze-

tik Kaxero joan zitzaion eta kazkarrean jo zuen. Atanaxiok:

— Egon hadi geldi!

Gerotxoago Kaxerok berriz ere berdin. Atanaxiok esan zion:

— Egon hadi geldi, bestela sarjentoari esango zioat eta barrura hoa.

Kaxerok:

— Sarjentoak zer egingo zidak, ba, gobernadorea nauk eta?

Orduan Atanaxiok:

— Gobernadorea ez zekiat, baina gaizki gobernatu-
turiko semea bai.

MOZKORTURIK BURRUKAN

Atanaxio eta Benito Buruzuri tabernan bertsotan ari ziren. Buruzurik poliki egiten zuen bertsotan. Atanaxiok hizketan bai, baina bertsotan ezin zuen. Ernegatu zen eta esan zion:

— Gainera deskuidatzen bahaiz, behera!

Buruzuri harro samarra omen zen eta berehalaxe zutitu zen esanez:

— Zer esan duk? Zer esan duk?

Zutitu bai, baina lurrera erori ere bai, mozkor bait

zegoen. Lagunek altxatu zuten eta berriz ere:

— Zer esan duk?

Eta berriro lurrera erori zen.

Orduan Atanaxiok esan zuen:

— Bere kasa lurrera erortzen denarekin ez diat ezertan hasi nahi.

Gero Atanaxio ere altxatzen hasi zen eta hura ere lurrera. Biak lurrera. Elkar hiltzeko moduan zeuden noski.

MOXOREN URRE MEATZEA

Moxok urre meatzeaz amets egiten zuen. Orbegozoren zakartegitik eskori puskak hartu eta gorri samarrak ikertzen zituen, urrea zeukatelakoan. Patxi zen ikertzailea. Moxok puskak ekartzen zizkion eta Patxik:

— Honek ehuneko zortziren bat badik.

Moxok: —Bai bederatzi ere.

Patxik: —Beste hau zakurrari botatzeko.

Moxok: —Ez, horrek ez dik gauza handirik edukiko.

Eta horrela ibiltzen ziren. Moxok urre meatzea ikusten zuen. Lehen kapa sega harria edo zorroztarria zen, bigarrena esmerila eta hirugarrena urrea. Azkenean urrerik ikusi gabe hil zen gaixoa. Edaten zuenean, urrea

ikusten zuen. Meatzean lanean hasteko, mila duro behar ziren. Mila duro aurreratzeko, edateari utzi behar zion. Baina edateari utzita, ez zuen urrerik ikusten. Zer nahi duzu destino krudelagorik?

GABIRIA - GIPUZKOA

JAKIN ETA AHAZTU

Atanaxio tabernan zen eta gazte batzu adarra jozten ari zitzaizkion. Halako batean Atanaxiok esan zien:

— Zaudete isilik, mukizuok. Zuek dakizuen aina ahaztu egin zait niri.

* * *

Roke argal-argala zen. Eugenio Muruari eta Serapini gardantxilokumeak ostu zizkien kaiola eta guzti. Gero Roke gaixo batek jo eta asko gizentzea gertatu zen. Serapinek tabernan aurkitu zuen batetan, Eugenioren lepotik heldu eta Rokegatik esan zion:

— Hi, Eugenio. Hire etxe albotik ostuta eramandako jilgerokumeak baino gizenago zegok hau.

Sabino eta Andres hirugarren festa eguneko biharamon goizean zihoazen etxerantz, eguna argiturik. Bezperan asto karrera izana zen eta Sabinok astoa zeraman etxera. Bidean astoa egarri zen eta ur aska batetara tiratzen zuen. Sabinok sokatik tiratzen zion eta Andresek atzetik:

— Utziok, mutil, utziok. Guk hainbat edan balu, ez zian horra joan nahiko.

KURRILLO MINETAN

Kurrillo minetan lanean ari zen. Garai hartan Ze-raingo minak famatuak ziren. Behin bagoneta batek ihes egin zuen goitik behera. Hura nola ekarriko eta Kurrillok berak ekarriko zuela esan zuen. Bazekarren behetik gora eta izerdi putzetan zetorrela, norbaitek zer zekarren galdetzean, Kurrillok esan zuen:

— Arantzazuko fraileen konfesonarioa!

Beste behin otartekoa jaten ari ziren eta gaineko paperari begira, lagunak esan zuen:

— Aizak hi. Hemen gose pixka bat ona dela jartzten dik.

— Orduan badiagu pixka baterako bizia —esan zuen Kurrillok.

* * *

Bazen gabiriar bat Karlos izenekoa, ustez jakintsua. Bigarren munduko gerra zen eta Txekoeslovakia esaten komediak izaten zituen.

— «Etxeko-pakia» aurrera omen zihoak —esan zuen behin.

— Ez duk hori txarra —erantsi zion albotik Katarainek.

GALDAKAO - BIZKAIA

ZIRILO BIKANDIREN ERDERAKADAK

Zirilo Bikandi Fidelen anaia zen, zaharrágoa. Biak Ameriketán artzain egonak. Zirilo eskolatuagoa zen eta maiordomo egin zen. Erdaraz ere ikasi zuen, baina ez Cervantesen ordenan. Galdakao Bilbo jotzen dago eta inguru horretan erdarak, zoritxarrez, triskantzak egin ditu. Zirilok eta Florenek Galdakaotik Bilborako autobus bat zeukaten eta Zirilo kobratzaile zebilen. Erdaraz sarrítan egin behar. Txoferrari esaten zion:

— *Oyes, Florenti, ojo bache barbero!*

Barberiarén aurrean zulo bat zegoela esan nahi zuen.

— *Cuidado cartel obrero!*

«Obras» jartzen zuen seinalearengatik.

Behin norbaitek esan zion:

— *Tienes ruedas bajas.*

Eta Zirilok:

— *Amigo! Asiones suben.*

Autobusera jende asko igoten zela. Seinale ona, beraz.

Neska bat omen zihoan gona motz-motzez, behe-runtz tira eta tira. Baina motzegia ez baita tiraturik luzatzen, bazen nahiko marmario autobusean. Zirilok ikusi zuen eta esan zion:

— *Oyes, tu, sienta facha!*

Gaur «facha» eta horrelakoak entzutea ez da gozoa, baina hark patxadaz eseritzeko esan nahi zion.

Autobusetik oilo bat ikusi zuen eta:

— *Aparta, gallina, que te muero!*

Zirilo argia eta filosofo handia zen. Hona haren jakituriaren arau nagusia:

— *Más vale pluma juventud que vejes ofisio txarrikeros.*

Ez dakigu txarra, txarria, txarrikeria ala txarri zaintzea esan nahi zuen, baina denak ere hurrean dabilta. Taberna Nagusia ez zen eskola txarra. Hemengo tabernaria, Ziriloren anaia, indartsua zela esan dugu hirugarren mailan. Bazuen Fidelek otarre handi bat, bereztat apropos egina, karga handia ekartzeko eta haurrak bertan eramateko. Bost mutikoak otarrean sarturik eramaten zituen sorora.

LANGILE ERRESPETOKOA

Harrobi batean ugazabak Santos Txikerra jo eta lubetatik behera bota zuen. Santos zutitu eta txabolara joan zen.

Ugazabak: —Santos, nora hoa?

Santosek: —Etxera!

Ugazabak: —Gaur faltarik gehien eta etxera? Troka lurrez beterik eta etxera?

Santosek jaramonik ere ez. Etxeko eskopeta hartu eta bidean itxaron zion ugazabari. Ilundurik zegoen. Ugazaba bazetorren eta Santosek, bide erdira irtenik:

— Alto! Belauniko!

Ugazabak: —Hil egingo al nauk? Barka ezaidak gaurkoagatik. Ez diat gehiago egingo.

Santosek: —Belauniko esan dut!

Ugazabak: —Belauniko negok.

Santosek: —Errezatu Jesukristo neure jauna.

Ugazabak nolabait errezatu zuen. Santosek ostikada bi ipurdian eman eta bidali zuen, esanez:

— Eta gehiago kontuz!

Biharamonean, biak isil isilik lanean eta lagunak pozik.

GARIZUMA

AZKEN AFARIKO KOADRUA

Herri batean bazen pintore bat eta apaizak aste santu aurretxoan esan zion:

— Aizak, zergatik ez duk azken afariko koadro bat egiten? Ostegun santuko sermoian desestali eta herri guztia hari begira dela, nik egingo nitek sermoia! Ederra izango lukek!

Pintoreak baietz esan zuen. Apaiza sermoi haundia prestatzen ari zen. Bezpera gauean oraindik koadroa bukatzeko zegoen. Apaiza urduri zegoen. Pintoreak esan zion:

— Joan lasai ohera, jauna. Hau biharko egina dago.

Heldu zen sermoi ordua eta han zegoen koadrua al-dare nagusiaren erdi-erdian, oihal urdin ederrez estalia. Apaiza bero ari zen:

— Zer zen azken afaria? Zer zen gure Jesukristok bere gorputza eta bere odola utzi zigun hura? Orain-txe ikusiko duzue. Ager bedi!

Sakristauak oihala korritu zuen eta hura zen koa-drua. San Joan mahai gainean mozkorturik zebilen. Jesukristo Madalenarekin balantzaka. San Pedrok «ole!» esaten zion eta besteak ere ahal zen moduan. Apaiza harritu zen. Eztul batzuk egin zituen eta jarraitu zuen:

— Ikusten al duzue nola gure Jesukristok, hil behar zuten bezperan ere, alaitasunari eusten zion? Ez dago kontzientzia garbia bezalakorik...

Nola edo hala amaitu zuen sermoia. Elizkizuna bukatzean, pintoreari sakristiara deitu zion eta esan:

— Nola egin duk lotsagabekeria hori? Nola egin didak traizio hori?

Pintoreak erantzun zion:

— Jauna, nik atzo gaueko hamabietan denak ondo utzi nituen. Gero endregatu baldin badira, nik ez dakit ezer.

HAU EZ DA IPISTAR

Bizkaiko Ispazter herriari heuren eta ingurukoek IpiSTAR esaten diote. Edale haundiak omen ziren eta apaizak urte hartan fraile haundi bat ekarri zuen, agindu honekin:

— Nola edo hala, edana moztu behar duk aurtengo misioetan.

— Neure kontura —esan zuen fraileak.

Asteko lehenengo sermoian, honelaxe hasi zen orroaka:

— Hau ez da Ipistar, baizik Aplastar!

Eliza betea isiltasun hutsa zen.

— Herri honetan ez dago gizonik, tabernan zorrik ez daukanik!

Gizon batek korupetik erantzun zion:

— Herri honetara ez da etorriko frailerik, ez txiki-rik ez haundirik, gure tabernako zorrak ordainduko dituenik.

ARDOA ETA URA

Gizon bat paskoazkoa egiteko konfesatzera joan zen. Bere bekatu bakartzat mozkorreria aitortu zuen. Apaizak esan zion:

— Nola liteke gizona hain kazkarra izatea? Animalia baino txarrago. Ez al duk ikusten nola animaliek ere urari neurria hartzen dioten?

Gizonak erantzun zion:

— Jauna, urarekin geu ere ez gara deskuidatzen.

GOIZUETA - NAFARROA

GOIZUETAR BAT HILTZEN

Goizuetar bat azkenetan zegoen. Oleazioa eta denak hartuak zituen. Apaizak orduan esan zion:

— Egingo al duzu fedearen aitormena?

— Nahi duena, Jauna.

— Sinesten al duzu Jainkoa badela?

— Bai.

— Sinesten al duzu ifernua ere badela?

— Bai.

— Sinesten al duzu ifernuko gure etsairik handiena demonioa, Luzifer dela?

— Bai.

— Gure etsai bezala gorrotatzen al duzu?

— Nor, nor, zer esan du? —galdetu zuen hilzori-koak, «gorrotatu» entzutean.

— Demonioa gorrotatu! —berriz ere apaizak.

— Hara, jauna. Batek ez daki noraino iritsi behar duen eta nik ez dut inorekin gaizki egon nahi.

NI HEMEN

Beste goizuetar bat hiltzear zegoela, apaizak lasaitzeko esaten zion:

— Zuk mundu honetako zorrak ordainduak baitutuzu, han ez duzu goserik, ez duzu egarririk, han ez duzu minik, gozamena baizik.

— Nahi baldin badu —erantzun zion hiltzen zegoenak—, joan bedi berori nire partez. Ni hemen geratuko naiz.

LEPOA ETA BURUA

Ba omen zen Goizuetan alkate bat, mutilzaharra bera, argal argala eta beti elizan zena. Elizatik etxerantz tabernan sartu zen eta han elizarik apenas zapaltzen

zuen goizuetar bati esan zion:

— Hemen gure buruhandia. Hobe hukeen elizara joan bahintz, hona etorri baino.

— Bai, bai —erantzun zion bestea—. Jainkoak bazekik nola egin behar zen. Nire burua hire lepoaren gainean jarri balu, laster joko zian lurra.

ARRAULTZE LAPURRA

Goizuetar batek dozena bat arraultze norbaiten sototik ostu zituen. Lagun batekin zihoan, baina honek ez zekien ezer. Hark arraultzeak golkoan zeramatzan. Bide estuan, goitik behera zihoazela, arraultzeduna erori zen. Laguna aurretik zihoan eta zain geratu zen.

— Zertan ari haiz? —galdetu zuen, bestea ez zetorrela ikusirik.

— Etor agudo, mutil. Agudo! Tripak atera zaizkidak —hotsegin zuen arraultzedunak.

Laguna lotu, bizkarrean hartu eta nola-hala eraman zuen. Gero soinekoak kentzen hastean, arraultze gorringoak gogorturik ageri ziren, bizarretan zehar, beharaino. Haiek ziren haren tripa atereak. Lagunak dena garbitu zuen, ustez behintzat, ipurdia ere garbitu zion eta esan zion:

— Hurrengoan, arraultzeak ostutzean, hobe duk behetik gora joatea.

LAGUNAREN URTEAK

Goizuetar bat Leitzan ari zen zurgin ikasten. Kamioizale bat, egurketan ari zena, tabernan sartu zen eta goizuetarra han ikusi zuen, purua ederki erreez. Kamioizalea harritu zen hura hala ikustez, astegun soila baitzen. Goizuetarrak esan zion:

— Hartu nahi al duk kafe bat?

— Beno —esan zuen kamioizaleak—. Zer duk, ba? Jai?

— Bai. Lagunaren urteak.

— Eta laguna non duk, ba?

— Lanean.

MANDOA ALA BEHORRA

Asteasuar bat Goizuetan ostatur zegoen eta «Asteasu» esaten zioten. Etxe hartan beste ostatari bat ere bazen, hankamotza. Kanadan istripua izana. Etxeko semeak behorrak zeuzkan eta hura faltatzean, Asteasuk eta hankamotzak egiten zituzten behor biltzeak. Mando bat, Berdabio baserrikoa, pentsua eman ez umatzekotan zeukaten. Denbora aurrera zihoan eta ez zen umatzen. Amerikano hankamotzak zerbait gehia-

go ulertzen zuen eta esan zuen:

— Koño! Errapea handitzen ari zaiok eta laster umatuko duk.

Etxeko semea ikuilura joan zen eta mandoa zen.

PASKUEL BESTE MUNDURA

Paskuel ez zen behin ere elizara joaten. Ospitalean gaizki zegoela, apaiza, Berroeta lagun harturik, hura biguntzera joan zen. Baina Paskuelek ez zuela inola ere konfesatu nahi.

Apaizarekin joan zen lagunak esan zion:

— Beste mundurako bidean zaude, Paskuel. Eta ez hanka bat, biak baizik.

— Hanka biak beste mundurako baditut —erantzun zuen Paskuelek— zueri iruditzen zaizuena egin eta nire konfesioa egina dago.

BEHIA BIZKARREAN

Mutilzahar bat aitarekin bizi zen. Aita zaharra zen. Semeak behia erosi zuen eta aitari esan zion:

— Aizu, aita. Behi hori nire gain jarri nahi nuke.

Bere izenean jartzea esan nahi zuen. Aitak erantzun zion:

— Aizak, hi. Hor zegok sotoan (ikuiluan). Har ezak bizkarrean eta orduan heure gain izango duk.

FRAILEAK ARDI BILTZEN

Arantzazuko fraileek Goizuetara ardi biltzera etortzeko ohitura zeukaten. Goizuetarrak artzainak izaki, etxe bakoitzetik ardi bana edo horrela ematen zieten. Hala agertu zen etxe batera frailea. Andreak sukalderra pasa erazi eta kafesnea eman zion. Gizonak, etorri zenean, esan zuen:

— Egunon, jauna. Zer dugu, ba?

Fraileak: —Hementxe, ardi biltzen.

Gizonak: —Zerorrek jakingo duzu non alatu dituzun. (Alatu: bazkatu edo larrean zabaldu).

ERBIÑUDEA ETA ALBAITARIA

Goizuetako baserri batean behi bat gaizki jarri zen, erbiñudeak errapea horzkatu. Albaitariari deitu zioten eta Leitzakoa etorri zen. Zer zuen galdetzean eta

erbiñidearen horzkada entzutean, esan zuen:

— Erbiñudea? Ez dut sekula aditu.

Etxekoek azaldu zioten:

— Arratoiaren antzekoa izaten da, haundiagoa eta pozointsua.

Albaitariak berriz ere:

— Ez dut sekula aditu, baina gaur arratsean estu-
diatuko dut nik hori.

Biharamonean albaitaria etorri zen eta esan zien:

— Ibili naiz liburu eta paper guztiak aztertzen eta
ez dut pizti horren aztarnarik hartu.

Etxeko gizonak esan zion:

— Baina, gizona! Nola bilatuko duzu, ba, paper ar-
tean, paret zuloan egoten baita?

HAIEK ARDIAK!

Goizuetar bati «Nerbio» esaten zioten. Auzo batek
Nerbiori galdetu zion:

— Aizak hi, Nerbio. Nondik heldu haiz?

— Menditik.

— Ikusi al dituk gure ardiak?

Etxe hartako ardiek txiki fama zeukaten eta Ner-
biok erantzun zion:

— Bai, lau hantxe zeuden ontto azpian eta hiru sa-
tor pilan sartu dituk.

ESE ETA ZETA

Goizuetan bi letra hauek ongi bereizten dira. Goizuetar neska bat Gipuzkoako herri batera neskame joan zen. Han letra horiek ez omen zituzten hain ongi berezten eta zortzi egunen barruan, herri hartako doinua harturik etorri zen neska Goizuetara, zetaren tokian ese harro sartuz. Kaskagorri aurkitu zuen eta neskak esan zion:

— Ser modus, Kaskagorri?

Kaskagorrik ere:

— Ongi, eta su?

Neskak: —Ikusi al ditusu gure aita eta ama?

Kaskagorrik orduan:

— Bai, hantxe ari dira ziloan, kaka biltzen.

ANDRES NARBARTE, «XALTO»

Andres Narbarte bertsolaria Goizuetan «Xalto» zen eta izen horrekin ezagutzen dute. Urte batez, Lekunberrin Nafarroako bertsolarien txapelketa egitea pentsatu zuten. Horretarako Goizuetatik Karreto eta Xalto eraman zituzten. Nola konbentzitu, ordea, Xalto? Apaiz batek esan zion:

— Aizu, Xalto. Ongi legoke zu ere azaltzea. Badakizu euskara indartzen ari direla eta hori gauza ona da. Munduko hizkuntzarik zaharrena hain zuzen euskara dugu.

Xaltok erantzun zion:

— Euskara? Ziolatik haruntz eta Barrenetxetik behera, batere ez du balio.

Orduan apaizak esan zion:

— Nolako ez duela balio? Behin, duela urte asko, Parisera joan behar nuen. Baionan gorunzko trena hartu beharrean, Hendaiaruntz hartu nuen.

— *A dónde va este tren?* —galdetu nuen. Inork ez zidan erantzun. Gero hura Euskal Herria zela pentsatu nuen eta hotsegin nuen:

— Ba al da hemen euskaldunik?

Gizon bat jeiki zen eta euskaraz hitz egin genuen. Hura ez zela Pariserako trena, Paristik zetorrena bai-zik, eta hala Miarritzen jaitsi eta ongi harrapatu nuen. Ikusten nola euskarak Goizuetatik urrun ere balio duen?

Azkenean konbentzitu zuen Xalto. Hain zuzen, joan eta goizuetar biak geratu ziren finalista. Orduan gaitzat «Euskara» jarri zieten.

Xalto apaizak esan zionaz gogoratu zen, euskara hizkuntza zaharra dela eta abar. Orduan bertso batean kantatu zuen Jaungoikoak ere, hemen predikatzen ibili zenean, euskaraz egin zuela. Ikaragarrizko txaloak jaso eta txapeldun geratu zen. Eta agur hauxe kantatu zuen:

**Egunen batean tokatzen bazarete
Goizuetara joatea
zabal zabalik egongo dira
nere etxeko ateak.
Dagonetikan emangoizuet
jatea ta edatea
horratx bihotz barrendikan eskeini
Narbarten borondatea.**

Egun hartan bertan agertu zuen Narbartek bere borondate zabala. Saritzat eman zizkioten bi mila pezetak etxera aurretik gastatu zituen, lagunak gonbidatuz.

AZKEN TRISTEA

Xaltok duela zenbait urte azken tristea izan zuen. Basoa erretzen hasi eta suak inguraturik eta kiskalirik hil zen gaixoa. Xaltoren ama oraintsu hil da. Xaltoren amonak ere azken berezia izan zuen. Autobusean zertorrela, norbaitek zekarren txerrikumeak hozka egin zion eta hartatik hil zen. Xaltoren berri gehiago ere emango dugu hurrengo batean.

HELETA - NAFARROA BEHEREA

HELETAN ELEKETA

Hau ez da bertsoa,
baina bai askori entzuten zaiona:
Luhosotik goraxago toki pollitean da Heleta.
Jendea gostura egoiten da kasko hartarat hel eta.
Hango jende bipilek badakite eleketa.
Ez dira isiltzen basoa huts eta.

EMAKUME BILDURGABEA

Behin gizon gazte ezkondu batek emakume ezkon-
du bat topatu zuen, aldapan gora zetorrena. Gaua zen

eta gizonak esan zion:

— Aizu, anderea. Ez al zara bildur gauez bakarrik kanpoan horrela ibiltzen?

— Zeren bildur? —ihardetsi zuen andereak—. Emakumeek ez naute bildurtzen eta gizonentzat behar diren guztiak badituk.

OILASKO GURIAK

Urbeltzetan egun batez emakume batek Joanesi galdetu zion:

— Aizu. Zu zurgintzan etxez etxe baitzabiltza, ba al dakizu non diren oilasko guri batzu saltzeko? Oilasko gazteak nahi nituzke, oraindik lanean hasi gabeak.

Oiloen gainean hasi gabeak esan nahi zuen eta Joanesek ihardetsi zion:

— Bai anderea! Aski duzu Uharteko auzategira joatea. Harregian segurki badira.

(Harregia baserri baten izena da eta etxe hartan baziren hiru mutilzahar. Lanean hasi gabeak noski).

BUZTANA ZUTIK

Mendi batetan bazen mahasti bat eta beste aldean pentze edo belartegi bat. Hango andrea behi bila joan zen.

— Auiii! —oihu egin zien Marik behiei. Behiak berehalaxe abiatu ziren goitik behera, korrika eta buzta-na airean zutik. Orduan beste aldeko mahastitik Kaietek hots egin zion Mariri:

— Ez duzula horiek bezala korritzen!

Eta Marik erantzun:

— Ez duzula horiek bezala altxatzen! (Ez duzula korritzen: ezetz korritu).

APEZEKIN IRRI

Heleta ondoan bada Iholdi izeneko herri bat. Behin Heletako apezak predikuan esan zuen, heletar guztiek ifernuan erre behar zutela. Heletarrak triste zuden. Bat ordea irrika ari zen.

— Irrika ari al haiz? —galdetu zioten.

— Bai —erantzun zuen besteak—. Erre zaitezte zuek. Ni iholditarra nauk.

Beste behin, apez batek beste apez baten etxean baz-

kaldu zuen eta zalia (burduntzalia) gorde zion. Bihamonean honek deitu eta esan zion:

— Aizak. Atzo zalia galdu nian. Ez diat esaten hik eramán huela, baina baldin badakik non den, esaidak arren.

— Aizak —ihardetsi zion besteak—. Ez diat esaten neskamearekin lo egin huela, baina heure ohean lo egin bahu, han aurkituko huen.

IHOLDI - NAFARROA BEHEREA

HASERRETZEA ALFERRIK

Iholdin ba omen da kotxe konpontzaile bat, mihiz oso ondo egina, baina besoz eta eskuz nahiko alferra. Alferra ere ez, baina lan bat egiteko denbora asko behar zuena. Alfer batzuk, lan bat egiteko, bizitza guztia behar dute. Gure kotxe konpontzailea ez zen hainbestekoa. Jan Pierra izeneko gizon batek bere kotxea hiru hilabetez haren eskuetan zeukan. Egun batez haserretu zen eta andreari esan zion:

— Gizon hori ikustera noa. Berdin izango da, baina gizon ustel horri zernahi esan behar diot.

Jan Pierra kotxe konpontzailearen etxe aurrera heldu zen eta hizketan hasi aurretik gizonak esan zion:

— Bazekiat, bazekiat, Jan Pierra. Hire tokian izan banintz, berdin-berdina izango ninduan.

Jan Pierra bere haserrearëkin etxeratu zen eta andreari esan zion:

— Gizon ustel horri ez dago ezer esaterik.

MARROA FALTA DUZU

Lorentzo artzaina bazihoan bere artaldearekin eta Alkat bertsolariak, kotxean zihoalarik, esan zion:

— Lorentzo, marroa (aharia) falta duzu.

— Jaitsi hadi —erantzun zion berehala Lorentzok.

AITAGINARREBAREKIN HASERRETUA

Iholdiko mutil bat bere aitagarrebarekin haserretu zen eta honek esan zion nola oso gauza gutxirekin etorrria zen haren etxera, bere alabarekin ezkondurik. Honela esan zion aitagarrebak:

— Eta azkenean zer ekarri duk, gure etxera etortzean?

— Bai —erantzun zion suhiak—. Zerbait izan banu, ez nintzen zure etxerako.

ALKATEK HEGO ALDEARI

Iholdiko Alkat bertsolari gazteak bi bertso hauek bidali dizkigu:

**Hego alderat sartzean utzi ondoan Iholdi
Euskal sustraien aztertzeaz ez nindaike geldi.
Nortasun bero bakar bat dut nik denetan sendi.
Zergatik puskatu zuten osorik zagon Euskadi.**

**Denok borrokan gaude zoin geure txokoan
zerbait erein nahian euskaldun ildoan.
Hortik heldu naiz eta horrat nahi joan
amets hori sar bedi gaur denen gogoan.**

IZURTZA - BIZKAIA

OINAZTUZKO ORMAK

Herri askotan bezala, Izurtzan ere bada gezur asmatzaile handi bat, Martin izena duena. Hauxe kontatu zuen behin:

— Afaritan geundean eta trumoi handia zuan. Halako batean oinaztu (oinaztarri, tximista) bizi bat izan zuan eta zarata handi bat. Zeozer jausi duk. Zer duk? —galdetzen genian sukaldean, baina gau iluna zuan eta inor ez zuan kanpora irten. Biharamon goizean banihoak eta oinaztua patinera jausia. Hi hintzen, arraio hori? Pikatxoia eta porra ekarri eta jotzen hasi ninduan, baina ezin nian oinazturik apurtu. Jo eta jo, halako batean kolpe txarren bat eman edo, zatitu zuan eta zazpi metrotako ormak egin nitian etxe aurrean, oinaztu zatiekin.

MARTINEN ERBIA

Beste behin —kontatzen du Martinek— ehizara joan ninduan. Txopitearrak ere ehizan zituan. Santa Kurutzera joan gintuan erbitan. Eguerdian txakurrek zaunka eta zaunka ekin zioaten luzaro. Txakurrak isildu zituan. Ondora etorri eta hankak mizkatzen (miatzen) hasi zituan. Bah! —pentsatu nian—. Hori joan duk. Etxera. Etxera heldu eta andrearen kapritxoa eskailuak jan gura zituela. Tira, ba. Hori ere egingo dinagu, erbitan beste suerte izaten bada. Bazkal ondoan errekan sartzen nauk eta han sarea bota eta sarea jaso. Hone-tan tiroak hasi zituan. Txopitearrak oraindik hor zebiltzak —pentsatu nian. Horixe pensatu baizik ez, bi tiro pin-pun elkarren gainean izan zituan. Oraintxe erbia bota diate, pensatu nian. Halako batean, sarean zarrapastada itzela somatu nian. Jasotzen diat sarea eta erbia bertan. Txakurrak kaun-kaun zaunkaka, kami-notik neuri begira.

PEDRO LARRAIÑA

Pedro Larraiña ere ehiztari trebea omen zen. Beti bi oilagor zituela ibiltzen zen, fanfarroikerian. Duran-

gon paseatzen zebilen, oilagorrak gerritik dingilizka (zintzilika).

— Hau duk ehiza! Egunean bi beti! —esaten zuen.

Taberna batean, gazte batek, hark ez zekiela, klis klas oilagor biak samatik (lepotik) ebaki zituen eta Pedro Larraña aurrera. Hurrengo tabernan ere:

— Hau duk ehiza!

— Non dauzkak, ba, oilagorrak? —galdetu zioten.

— Hemen din-dan. Erredios! —begiratu zuen eta oilagorrak falta.

SATUR ETA BANBU

Satur eta Banbu Durangon zebiltzan, poliki horniturik. Ezkurdiko plazan, kiosko parean, Saturrek txiza egin zuen. Hain zuzen agoazila gainean suertatu zitzaion eta:

— Zer egiten duk?

— Txizalarri naiz eta txiza.

— Txiza hor? Multa ordaindu behar duk.

— Tira, ba. Ordaindu behar bada, ordainduko dugu. Zenbat da?

— Hamar hogerleko.

Saturrek ehun pezetakoa eman zion eta agoazilak kanbiorik ez zeukala.

— Banbu! Hator hona! —hotsegin zion Saturrek lagunari—. Egik txiza hemen.

— Zertarako txiza? —galdetu zuen Banbuk.

— Egiteko esan diat! —Saturrek. Banbuk txiza egin zuenean, Saturrek agoazilari esan zion:

— Berrogeita hamar pezeta nireak eta berrogeita hamar honenak, ez da kanbiorik behar.

BANBUREN SAKEA

Banbu pilotari ona omen zen. Bere burua zaindu eta hartara jarri balitz, pilotari handia izateko ahalmenak omen zituen. Baina zurruta maite. Behin Igorreko pilotalekuan zebilen edanda. Sakea ateratzera zihoan. Jaikia (botea) eman eta goruzkoan pilotak begian jo eta begia handitu zion. Baina Banbuk beheruzkoan harrapatu eta ona egin zuen.

JOSE MUNDITUA

Jose Mundituaren kontakizunekin hamaika barre egiten zuten izurtzarrek. Behin soldadu mutilei kontatzen zien:

— Nik gerran ikusi nuen bezalakorik! Mendi bat hartu ezinik genbiltzan batailoi bat. Halako batean abioi bat behe behetik geuregana zetorren. Zer zekarrek horrek? Ba al dakizue zer? Kodainak! (segak) Zer tarako? Mekaguen! Oraintxe gaudek onak. Denoi hankak ebaki zizkiguten. Eta odol beroan arineketan (korrika) hasi eta halaxe hartu genuen mendia.

BASURDE KURIOSOAK

Duela hamabosten bat urte, basurde bolada izan omen zen Izurtza eta Mañari inguruan.

— Niri pasatu zaidan bezalakorik! —esan zuen Jose Mundituak.

— Zer pasatu zaizu, ba?

— Basurdeek piper guztiak jan dizkidate.

— Orduan triskantza itzela egingo zizuten.

— Bai zera! Maminak jan eta haziak eta trukutzak landarean bertan utzita joan dituk.

— Baina topatu diat basurdeak izorratzeko bidea —esan zuen beste behin Jose Mundituak—. Bazekiat nik non dagoen putzu bat. Hantxe bainatzen dituk, mardikatuak, eta nik ikusi. Goizean bainatzen dituk. Orduan zer egin zieat? Kodainak (segak) puntaz gora ipini urpean.

Geroztik egun batzutara galdetu zioten:

— Zer, Jose? Harrapatu al dituk basurdeak?

— Bai zera! Ipini bai, baina burdina usaina hartu eta gehiago ez dituk agertu ere.

OILAR BURRUKAK

Izurtzan, sasoi batean, oilar burruketara zaleak omen ziren. Jaiero burrukaren bat. Galtzen zuen oilarra biharamonean kazuelara. Herriko oilar guztiak orduantxe amaitu omen ziren. Markos ere horrelakoa izango zen. Behin andreak oiloak kakaraka entzun zituen.

— Zer da hor? —hotsegin zuen goitik oilategira.

— Ezer ere ez! —erantzun zuen Markosek—. Puztutzekoa behar dut eta bila nabjl.

— Zer? —berriz ere Mariak.

— Bizikleta puztutzekoaaaa!!

Biharamonean etxeko oilarrik onena falta zen oilategian.

LAU HANKAKO SUGEA

Jose Munditua leondar batekin eztabaidan ari zen. Josek suge hankaduna ikusi zuela eta leondarrak ezetz. Beste lagun bat sartu zen eta leondarrak hari erdaraz galdetu zion:

— Hi! Hik ikusi al duk suge hankadunik?

— Nik ez —erantzun zuen besteak.

— Ba, nik oraintxe ikusi diat lau hankako sugea —esan zuen Josek.

— Muskerra izango zuan.

— Ez! Suge sugea! —berriz ere Jose Mundituak—. Neure aurrean tente tente jarri zaidak. Kolpe egitera joan nauk eta salto egin eta hanka egin zidak.

Gezur asmatzaile handia zen Jose Munditua. Behin esan zuen:

— Txakurzulo koban dagoen bezalako haizkorarik ezetz izan inon. Ingudea jo besoa betean eta haginik ezetz atera.

Biharamonean ekartzekotan geratu zen, baina ez biharamonean ez hurrengoan ez zen Joserik agertu.

JESUKRISTOREN BRAGETA

Eskolako mutikoez arto bizarra erretzeko joera handia zuten orduan, orain tabakoa ere lasai erretzen dute

baina. Izurtzar batek bazekien hori eta mutiko bati, bere aitaren aurrean, tabakoa eskaini zion, ea zer egiten zuen. Mutikoak, sekula ezer erre ez balu bezalako plantak eginez, ukatu egin zuen tabakoa. Gero tentatzailak mutikoaren aitari esan zion:

— Hauek erreko likeate Jesukristoren brageta ere. Eta gero aitak mutikoari jipoia etxean.

GABINO ETA KAIXIO

Gabino superra zen Izurtzan. Haren izena famatua da orain ere. Aita-amarik ez zeukan eta osabarenean morroi zegoen. Osaba Kaixio. Etxe hartan bazen beste mutiko bat, Gabino baino gaztetxoagoa. Igandetan lehengusu biak joaten ziren Durangora eta abar. Ilunabarrean edo ilundutakoan, Gabinok bere lehengusu gazteagoa etxera bidaltzen zuen eta bera kanpoan geratzen zen. Osaba Kaixiok pentsatu zuen:

— Behin egin duk, baina gehiago ez duk horrelakorik egingo.

Hurrengo igandean, bere semea etxeratu zenean, ate-leihoak ondo itxi zituen. Baina Gabino biharamonean bere ohean zegoen lo. Hurrengoan ere berdin. Ateleihoak ondo itxi eta biharamonean Gabino beti ohean. Gau batez Kaixiok zaintzea pentsatu zuen. Manta za-

har bat gaisetik bota eta su ondoan geratu zen zain. Halako batean tximinian karraskadak entzun zituen.

— Hemen zetozek beste mundukoak!

Eta bildurturik ihes egin zuen. Han ez zegoen beste mundukorik. Gabino zetorren tximinik behera. Laratzean oina ipini, handik lurrera tak eta handik ohera.

NORA GOAZ?

Gabino handia hazi zenean, bizikleta baten jabe egin zen. Osaba Kaixio Urkiolan zegoen eta Otxandiora joan behar zuen. Gabinok esan zion berak eramango zuela bizikletan. Frenurik ez zeukan eta pago adar bat lotu zion atzetik tatarrez. Osaba Kaixio atzean eseri zen eta abiatu ziren. Lehenengo kurban ondo, baina hurrengo zuzengune luzean adarra galdu zuten eta hura abiadura hartu zutena.

— Gabino! Gabino! Nora goaz? —hotsegiten zuen Kaixiok.

— Ahal den lekura! —erantzuten zuen Gabinok. Ez zuten aberia handirik egin, baina osaba Kaixio ez zen gehiago Gabinoren atzean jarri.

TAKOLO LANBRETAN

Takolok ere bazuen bizikletan ibiltzeko afana. Behin Urkiolan behera bidea betean zetorren, oraindik ondo ikasi gabe. Baina ausartu, deabruaren gainean ere bai. Gizon bat idiarekin perratokira zihoan.

— Hor doa! Hor doa! —oihu egiten zuen goitik behera Takolok. Idia jo eta luze.

— Ai, ai, ai! —egiten zuen. Baina idia baino lehenago sendatu zen Takolo. Bizikleta gutxi zuelarik, motoarekin aprobatzea pentsatu zuen. Lanbreta bat hartu zuen eta garajekoak azalpen guztiak eman zizkion:

— Honek honelaxe. Frenua hemen. Kanbioak honela.

— Ederki! —esan zuen Takolok. Martxan abiatu zen, luzean sartu zuen eta bere etxe parean zarataka hasi zen:

— Ene! Nora goazek? Nola duk hau?

Joaten bazekien, baina geratzen ez zekien.

— Goazen aurrera! Geratuko haiz nonbait!

Mañarin gora hartu zuen. Nora? Urkiolan gora. Aldapa hasiz batera, bada beste bide bat Urkuletara hartzen duena. Takolok handik hartzea pentsatu zuen. Baina han laster amaitu zen kaminoa. Orain zer? Basoko pistan gora. Ez zen urrun joan. Han geratu zen motoa, tar-tar-tar eta pot.

— Tirok, ba! Geratu haiz noizbait! —esan zion motoari.

LAURO - BIZKAIA

ASTO PROBAK

Inguru honetan bada asto probetara zaletasunik. Proba guztietan bezala, hemen ere azpijokoak eta ton-goak eta demonioak ez dira urrun ibiltzen. Hona hemen zein den aisa irabazteko tranpetarik bat. Probarako astoak perraturik eramaten dira. Edo eraman litezke behintzat. Orduan astoaren oina U bat bezalakoa da. Perrak tankera hori edukitzen du. Erdian zuloa edo hutsunea edukitzen du. Hor dago sekretua. Perra artean xaboia sartzen zaio eta astoa tiratzen asteen, xaboia pixkanaka urtzen da eta bigarren bueltarako zelaia laban edo irristakor dago. Saioa amaitu orduko, xaboia gastatu egiten da edo gastatzeko moduan kalkulatu behar da. Beraz, hurrengoarentzat ez dago bikokarik. Beste sistema bat astoari tripapea xaboiz igur-

tzitzea da. Gero izerdiarekin batera jaregiten zaio eta zelaira.

Laurotar batek tripapean xaboia ederki eman zion astoari. Baita perra artean ere. Baina tiraka hasitakoan, xaboirik ez zitzaion jaregiten (soltatzen). Saio azkene-rarte ez zitzaion jaregin. Eta zer? Hurrengo astoaren-tzat suertea. Tranpa asmatzaileak alde handiz galdu zuen jokoa.

ASTO BEGIBAKARRA

Bazen, ordea, beste tranpa naturalago bat. Proba-rako asto eder bat zeukaten. Ezin hobea alde guztietatik, begibakarra baitzen. Begibakarrak ez du bigarren begirik ez duela esan nahi, begi batetik ez duela ikusten baizik. Bistarako, asto normala zen. Asto honekin nahi bezain asko egiterik ez bazen ere, nahi bezain gutxi egitea seguru zegoen. Begi itsua zeukan aldetik katea laburtxoago jartzen zioten. Orduan burua harantz okertu behar pixka bat. Itzainek —astozainek hobeki—, alderdi hartatik egundoko zalaparta eta eskandalua ateratzen zuten akuiluz. Baina astoak ez baitzuen handik ezer ikusten, nahi zuten markara jaisten zuten. Gero komeni zenean, kateak berdindu, burua zuzen ipini, eta egurra ematen zuten. Dabilenak zer asmatzen ez duen!

JOSE GARAI

Jose Garai gurdiarekin egurra eramaten ari zen, kaminoan zehar. Bidazainak (kamineroak) gurdi markak ikusi eta bueltan multa bota nahi zion, gurpil bat bazterretik eraman eta ertza apurtu zuelako. Gurdia geratzeko agindu zion, izen abizenak hartzeko. Jose Garaik gurdia baztertu zuen. Aldapan zen eta atzerantz ez joateko, ukabila ipini zion gurpilari, harria balitz bezala. Bidaginak hori ikusi zuenean, zoraturik zegoela pentsatu zuen eta beste gabe joaten utzi zion.

LAZKAO - GIPUZKOA

APAIZAREN SALDA

Lazkaoko erretoreak maizter batzu lanera eramán zituen. Bazkaltzeko gisatua jarri zien, baina okela gutxi eta salda asko.

— Zer moduz? —galdetu zien apaizak, eta batek erantzun:

— Hemen ari gara, jauna, andapara hustu ezinik.

KARLISTA HIL

Lazkaoko karlista bat hil zen eta hiletako mezatan «Jaiki, jaiki» jo zuen organistak. Gizon batek albotik esan zion:

— Hor dagoena ez duk jaikiko. Bestela ai zer jipoia hartu behar hukeen!

MANTA EDERRA

Mamux baldearekin iturrira zihoan. Egundoko izotza zegoen. Taberna itxita zegoen, baina hark ireki erazi.

— Zer behar duk?

Eta Mamuxek:

— Migel! Atera baso bat ardo. Ez zegok munduan horrelako mantarik.

APAIZA ETA BELAR TXARRA

Etxeberria Txiki gaisorik zegoen. Kaleratu zenean, apaizak esan zion:

— Belar txarra galtzen ez duk erreza.

Etxeberria Txikik erantzun zion:

— Hik haitzurra hartuta ez duk, ez, berehala galduko.

BOST ETA BAT

Lazkaoko San Prudentzio jaiak zetozen. Lazkaotar batek lanerako ordezeko bat nahi zuen. Goizeko bostetatik ordu bata arte etortzeko eskatu nahi zion lagun bati. Laguna erdalduna zen eta honela adierazi zion:

— Oye, mañana fiestas de la pueblo. Venir cinco, va una.

— Bueno! Todavía te quedan cuatro.
Azkenerako elkar ulertu omen zuten.

PEKATUAREN ORDAINA

Koxkak eta Marrakasek Urrestillako bentan atea jo zuten, baina ez zen inoren arrastorik etxean. Soroan lanean edo. Itzaiak ziren eta hura gosea zeukatena.

Arkume bat zintzilik ikusi zuten eta eraman eta Mandubin jan zuten. Aste Santuan Marrakasek nonbait pekatua aitortu zuen eta Koxkari esan zion:

— Arkumea ordaindu beharra diagu.

— Zer ba? —Koxkak.

— Ez al duk paskoazkorik egin? —Marrakasek.
Orduan Koxkak:

— Esan egin al diok? Paga ezak herorrek. Nik ez zioat esan.

BETI ALDAPAK

Arramendi baserria oso aldapatsua da eta beheko lurrak gora jasotzen ari ziren. Nafar ardo banatzaile batek Benantxio alondigeroari zertan ari ziren galdetu zion eta honek:

— Horiek eroturik zeudek. Lurrak jasotzen.

Nafarrak zergatik eta zertarako ulertu zuenean, esan zuen:

— Lanbide egokia, ez?

Orduan Benantxiok:

— Bai, horrela berriz ere izango dituk aldapak.

AI, TRINI

Gizon batek emakume bati esan zion:

— Ai, Trini! Zure senarra urliarekin ibiltzen da.

Eta emakumeak erantzun:

— Hala ere geratzen zaio niretzat aina.

MALLABIA - BIZKAIA

ESPERANTZAREN LETANIAK

Mallabian bada, Oizen azpian, Geria (Gereaga) izeneko herritxo bat. Bada hemen eliza bat eta Mikel Zarate euskal idazlea izan zen hango azken apaiza, bertan egotez zegoena. Geriatik San Juango ermitara letaniak egiten ziren. Letaniak kantuz eta latinez izaten ziren. San Juanera bidean Trabakuko tabernatik pasatu behar zuten. Orain bi jatetxe eder daude bertan. Geriarrek bueltan, letaniak amaituta, tabernatik pasatzeko poza zeramaten. Hona zer letania kantatzen zuten, taberna ondotik pasaeran:

— Ex omni peste, fame eta bello! —kantatzen zuen apaizak aurrean.

— Libera nos, Domine —erantzuten zuen herriak.

— Guk hemen bueltan edan bitugun kopa ttunttur-

tuek —kantatzen zuen atzean norbaitek, apaizaren latinaz batera.

— Libera nos, Domine.

— Gutxienez bai biñe —beste batzuk.

— Ogiari be a ze ekiñe —segidan beste batzuk.

(Bitugun: behar ditugun. Ttunturtuek: tontortuek: tontortuak edo bete beteak. Biñe: bina. A ze ekiñe: a zer ekina edo janaldia).

KAKA PITIRIN SOST

Geriako sakristauak goizean goiz irekitzen zuen eliza, bezperan atea ondo itxirik. Behin sartu zen eta ahuntz gorotzak topatu zituen elizan. Atzetik zetorren apaizari hoska hasi zen sakristaua:

— Jainkoaren mirakulua! Jainkoaren mirakulua izango da hau.

— Laster konponduko dugu. Batu denak —agindu zion apaizak sakristauari.

Sakristauak batu zituen eta apaizari eman zizkion ahuntz gorotzak, paperean poliki bilduak. Igandea zen eta jendea etortzen hasi zen. Gure Jauna (komunioa) ematean, apaizak kristau bakoitzari gorotz bana ematen zion, esanez:

— Kaka pitirrin kabra zibirien sost!

Sakristaua heldu zen eta hari:

— Kaka pitirrin kabra zibirien sost, hi bertako ministroa haizelako lau edo bost.

ESTEBAN LAPATZA

Esteban Lapatzaren kontraerarekin saguek ere barre egiten dute Mallabian. Honen seme Manuel zaregina zen. Esteban zareak saltzera Durangora joaten zen, goizalde ilunean. Zerbait somatzean, bildurrez edo, kantatzen zuen:

— Kataluña Lorboño! (Logroño) Eta astoa geldi —segitzen zuen kontatzen—. Arre, errotara goaz ta! Zer dak hemen? Errekoño! Aurrea dena sorginez. Jesus esanda, seinatu nieran eta andarrekoño! Denek aldegin zidatean.

(Zer dak: zer dagok. Seinatu: aitaren egin. Zare: otarre, saski).

Esteban Lapatzak denbora txarra eskatzen zuen. Eguraldi txarragoa eta pozago.

— Zertarako nahi duk eguraldi txarra?

— Horrela bestek ere ez diate ezer egingo.

Behin Estebanek, bere eguraldiari ekinez, esan zuen:

— Egin behar ditugu itzelak. Katu zaharrak aulki bueltetan dantzan ibili dituk.

— Bart ordu batetan kirrin kirrin txori tropa pasatu duk gure etxe gainetik —beste mallabitar batek—. Horixe seinale ederra denbora ona egiteko.

(Itzelak: haundiak, izugarriak).

ERDARAZ ERE BAI

Esteban Lapatza ehiztaria zen. Bazituen ardiak eta txabola bat ere. Behin, ehiza debekaturik zegoenean edo, goardia zibilak agertu zitzaizkion eta honela konstatzen zuen Estebanek bere erdaran, goardia zibilek ez zuten hala egingo baina.

— *Ande va ustés?*

— *A monte a la chabola a sacar ovejas.*

— *Ha visto cazores?*

— *Sí, yo he visto, pero no se andan-andan.*

— *A mí no me jodas con esas palabras.*

— *Pues tócame los cojones.*

KARTUTXOAK EGITEKO

Badira ehiztariak, kartutxoak berek egiten dituztenak. Duela urte batzuk gehiago, diru gutxiago baitzen. Behin mallabitar batek menditik mendira lagunari hots egin zion:

— Bixente! Ekar ezak hona paper bat!

(Kartutxoak egiteko esan nahi zion).

— Lertaduna ala lertabakoa? —galdetu zuen Bixentek.

(Letraduna ala letragabea).

HALAKO MUNIZIORIK

Uxartek egia biribil hau kontatu zuen:

— Behin hamaika bele bota nituen tiro batez, behi zaharra jaten zeudela. Halako muniziorik!

TAMAINAKO JEUPADIE

Geriar batek eskopeta haundia zeukan, hamaseikoa. Bildur zen harekin tiratzen. Nola aprobatu asmatu ezinez, halako batean argitu zitzaion burua. Etxe aurreko sagarrondoari eskopeta lotzea pentsatu zuen. Berak etxe barrutik sokaz tiratu eta tiro egin zuenean, esan zuen:

— Tamainako jeupadie ein jok! (Eupada egin dik).

APAIZEN USAKUMEAK

Gareaga, Gereaa edo, han esaten den bezala, Geria, Mallabiko auzune bat da, Oizen azpian, bere eliza eta guzti. San Adrianetan Geriako apaizak, urtero bezala, kanpoko apaiz bat ekarri zuen sermoilari. Herriko apaizak urte hartan usakumeak jateko kapritxoa zeukan. Hala neskameari usakumeak ekartzeko agindu zion, apaiz bakoitzarentzat bana. Neskameak usakumeak ekarri zituen, baina, prestatzen ari zela, handik pik eta hemendik pik, erdi janik utzi zituen. Hark ere ez baitzuen noiznahi usakumerik jaten. Beranduegi zenean, pentsatu zuen:

— Hauek ez daude inori ateratzeko moduan.

Ustez sermoi ederra egin eta mezondo polita pasatu ondoren, kanpoko apaiza heldu zen lehenen eta neskameak esan zion:

— Gure apaiza berorreatatik kristorenak esaten ibili da, belarri biak atera behar dizkiola-ta.

— Belarriak atera? Banoa orduan! —esan zuen apaiz gonbidatuak. Alde egin zuen eta bazihoan, apaiz laguna zergatik haserretu zen igarri ezinez. Herriko apaiza etorri zen eta galdetu zuen:

— Non da bestea?

— Usakume biak hartuta joan da —erantzun zion neskameak. Geriako apaiza haserretu zen eta atzetik abiatu zen. Bestea han behera urrun zihoala, tontortxo batetik deika hasi zen:

— Eh! Hi! Bat ekar ezak hona!

— Ez! Hauek neuk behar ditiat! —erantzun zuen apaiz ihesgileak, belarriak seinalatuz.

SEME BIKAINA

Andre-gizon batzuk bazuten seme bat, boza goratzen eta hortzak erakusten hasia. Behin, eztabaida gogor batean, amak mutilari esan zion:

— Isilik gero! Txakurrik bat ere nahikoa da hemen.

— Orduan zahar hau akabatu egin behar dugu! —esan zuen semeak aitarengatik.

NESKA LAGUNTZA BETEA

Mallabiar bat Karmenetan Zornotzara joan zen. Han neskaren batzukin lagun egin zen eta iluntzean ea afari-meriendatxo bat egingo zuten. Neskek hortik jo zioten eta mutilak baietz. Baita pozik ere. Jan zuten eta itxuran jan ere. Hau? Hori? Mutilak denari baietz esaten zion.

— Hau etxe onekoa izango dun —esaten zioten elkarri neskek.

Papoak ederki gorritzen hasirik zeudela, mutila mahaitik jaiki zen eta atera jo zuen, piza egitera edo. Nola bait aldendu zen eta kito. Hura ez zuen gehiago inork ikusi Zornotzako Karmenetan. Neskak estu zeuden eta azkenean beste egun batean ordaintzeko utzi zuten, aldean apenas baitzeukaten gauza handirik. Kasua zabaldu zen eta mallabiarrak ere zerbait kontatu zuen nonbait.

— Nola egin hien hori? —galdetu zion lagun batek.

— Nola? Neskek jan egin nahi ziaten eta nik lagundu egin nieran.

ZAKURRA ETA NESKAMEA

Ba omen zen apaiz ehiztari bat. Sakristauak somatua zuen apaizak ez zuela bakarrik lo egiten. Askorik

kobratu ere ez eta hortik hasi zen zerbait pentsatzen. Baita asmatu ere. Apaizak bazuen zakur bat, oso maittea. Zekiena jakin ezik, sakristauak harexekin lo egingen zuela pentsatuko zuen. Goiz batez esan zion apaizari:

— Bai dela argia zakur hau.

— Bai? —atera zitzaion apaizari barru barrutik.

— Penagarria da honi zerbait gehiago ez irakastea.

— Nola, ordea? Honek bazekiat hizketan ere ikasiko lukeela.

— Hain zuzen horixe esan nahi nion, ba. Diru pixka batekin hor Burgos aldean, badira zakurrek hizketan ikasteko kolegioak, han eperrak ere ugari baitira.

Apaiza hartaratu zen eta diru pixka bat emanik, sakristaua eta zakurra Burgoserantz abiatu ziren. Miranda inguruan sakristauak zakurra trenetik bota zuen eta diruak gastaturik, etxera.

— Zakurra? —galdetu zion apaizak bueltan.

— Han utzi dut, baina ondo dago. Diru gutxitxo hala beharrean.

Apaizak diru apur bat gehiago eman zion eta sakristaua berriro abiatu zen. Bigarren joanaldian ere diruak ederki gastaturik etxeratu zen. Berriro diru gehitxoago eskatu eta hirugarren joanaldian ere zakurgabe itzuli zen. Apaiza arduratzen hasirik zegoen eta esan zion:

— Non duk zakurra?

— Hara, jauna —erantzun zion sakristauak apalki—. Bidean gentozela, ea berorrek lehengo neska-

mearekin lo egiten duen galdetu dit eta jo eta bertan garbitu dut.

— Ondo egin diok —amaitu zuen apaizak—. Bestela denek jakingo ziaten.

PRAKAK TARRAT

Mikel Zarate euskal idazlea zena Gerian apaiz egon zen. Trabaku azpiko ermita konpontzen ari ziren, apaiza bera ere sotana kendurik lanean.

Gizon bati prakek atzetik tarrat egin zioten. Haren ipurdiak freskura ederra hartu zuen. Uste baino tarratada handiagoa izan baitzen, prakak aldatzera aldegin zuen etxera.

— Non da hori? —galdetu zuen Mikel Zariatek.

Eta gizon batek erantzun:

— Han doa, piku-mailuak bistan dituela.

MENDARO - GIPUZKOA

GUSTOKO ANDREGAIA

Gertaera hau ez da atzo goizekoa. Kontatzen zue-
nak, Domingo Elortzak, bizi balitz, ehun urtetik gora
lituzke. Haren aitona-amonei gertatua denez gero, ia
berrehun urte badira. Aitonaren aitona hura menda-
roarra zen.

Lagunen batek hitzegin zion Bergaran bazela nes-
ka bat, harentzako modukoa. Hala mendaroar biak
Bergarara joan eta igande batez elizako irteeran jarri
ziren. Zein leku hoberik, disimuluan ikusteko? Irteten
ari ziren eta erakuslea ernai zegoen «horixe duk» esa-
teko. Biak isilik zeuden, ikusi eta ikusi. Halako batean,
andregai beharrekoak esan zuen:

— Arraioa! Eliza honetatik irteten denik bat ere ez
nuke hartuko.

Hitz horiek bukatuz batera, beste bat ikusi zuen eta esan:

— Horixe balitz, hartuko nuke horratik.

— Horixe duk, ba! —gaineratu zion erakusleak harro.

Bi mutilak egun hartan besterik gabe Mendarora itzuli ziren. Hurrengo igandean neska hura joaten zen erromerira joan ziren, egin beharreko hitzak egin zituzten eta Domingo Elortzaren aitona bere gustoko andregaiarekin ezkondu zen.

TXARRUALDEREN SAGASTIAN

Duela ia ehun urte, bazen Mendaron apaiz bat, «Txarrualde» esaten ziotena. Apaiz famatua ehizan eta beste zenbait gauzatan ere. Txarrualdek sagastia zeukan eta Kortabarrin ez omen zen sagarrik. Kortabarriko hiru anai Txarrualderen sagastira sartu ziren gauez. Ilargi zuritan, isilik eta bizkor, sagar batzen ari zirela, harrikadak hasi ziren sagastira. Gure mutilak, zakuak sagarretan zintzilik utzirik, goiko sasi artean ezkutatu ziren. Besteak sagastian barrura sartu ziren. Zakuak ikustean, batek eskua bota zion bati.

- Eup! —hotsegin zuen sasiarteaz ezkutaturik zegoen batek—. Bakean laga gero horri!

Orduan bigarren taldeko batek abotsetik hotsegi-lea bere anaia zela ezagutu zuen. Zer gertatu zen? Ar-notik ikazkinak sagar lapurretara jaitsi ziren. Badaezpada, sagastian sartu aurretik, harrikada batzuk bota zituzten. Eta hain zuzen, ikazkin haietariko baten hiru anaiak aurretik sagar batzen ari. Gero denak bandoko. Txarrualdek hori eta gehiago ere merezi omen zuen.

«ATREBIDO» ZEZENA

Mendaroko Lizundiako gizonak bazuen zezen famatu bat, «Atrebido» izenekoa. Debako eta inguruko zezenketetan izen haundia irabazi zuen. Zezenketa horietan, jakina, hil gabe erretiratzen zuten beti.

Urte batez, Madrilerako aukera heldu zitzaion «Atrebido»ri. Lizundiako gizona konformatu zen eta bere zezenari larruzko abarkak jantzi zizkion, bidean oinik ez nekatzeko. Oinez joan baitziren. Noizbait Madrilerara heldu ziren eta, zezenketa egunean, Lizundia albotik begira zegoen. Atrebido atera zuten, toreatu zuten eta hiltzeko turuta jo zutenean, Lizundiako gizona negarrez hasi zen. Zer gertatzen zitzaion eta berak ez zuela hura hiltzerik nahi.

— Toreadore jantzi eta banderilak kentzen badiz-

kiozu, bizirik eramango duzu —agindu zion enpresariak.

Gizonak baietz. Esan bezala jantzi zen eta han azaldu zen zezen plazan toreadore berria, ikusleak harriturik. Lizundia hurreratu zen eta zezen gaixoak putz haundi bat egin eta hankaz gora bota zuen.

— Atrebido! Zer egin didak? —hotsegin zion Lizundiak lurretik.

Orduan Atrebidok bere ugazaba ezagutu zuen eta «Uuumm!» eginik, miazkatzen hasi zitzaion. Lizundiak banderilak kendu eta bizirik etxeratu zuen bere zezena.

Noizbait, ordea, Atrebidori ere hil beharra heldu zitzaion. Zezina egin ondoren, Lizundiak haren hezur bat sukaldean zintzilik zeukan eta egunero errezatzen zion. Gari ebakitzeak ziren eta eguerdi batean gose ederez etxeratu ziren. Bazkal aurretik errezatu beharra zegoen eta deboziorik gehienez Atrebidori. Hain zuzen egun haietan Aita Santua hila zen eta hari ere errezuak egin behar. Lizundiaren suhia larri zegoen, errezuak luzatzen ari baitziren. Aita Santuarena entzutean, hotsegin zuen:

— Hori ere hil zaiguk eta!

HAURRAREN HILETAN

Mendaron haur bat hil zen. Ohi bezala, etxetik elizarantz apaiza bere kantuak eginez zihoan. Gurutzea

aurretik, apaiza ondoren, gero andariak zerraldoarekin eta etxeakoak eta herria. Haurraren aita zerraldoaren atzetik negarrez omen zihoan eta apaiza aurretik salmu kantari. Gizon batek segizioaren atze samarrean kopla hau kantatu zuen:

**Aita dana hor kantuan
aita eztana negarrez
hamaika gauza pasatuzen da
mundu honetan aldrebes.**

BORLAZ GORA

Baserri bateko anaia zaharra herrena zen. Lanerako itxura haundirik ez zioten hartzen eta gogorik gutxiago. Etxe inguruan norbaitzuk hizketan ari zirelarik, han azaldu zen mutila herrenka. Aitak orduan esan zuen:

- Hemen dago hau. Uztarria nola jartzen den ba ote daki?

Mutilak hedeak eta abar nola jartzen ziren ondo azaldu zuen.

— Eta burukoak? —galdetu zuen berriz aitak.

— Borlaz gora —erantzun zuen mutilak. Burukoak (edo sapak edo kopetakoak, anitz izan baitute) behiei

edo idiei bekokian jartzen zaizkienak dira, uztarri he-
deek minik ez egiteko. Hauek borlak zintzilik izaten di-
tuzte, idien begi gaineraino.

BILLABILLA

Bazen Mendaron Billabilla deiturako gizon bat. Na-
hiko zatarra eta bihurria omen zen eta ehizarako zale-
tasun haundikoa. Kerixak (gereziak) jan eta txoriak hil-
tzen ematen zuen eguna, baina ez etxeko kerixondoe-
tan. Behin hala goiza pasaturik, tabernara bueltan sartu
zen eta hitzak hitza ekarriz, Moxok esan zuen:

— Bai! Jainkoak ere bere burua egin omen zian
lehenengo.

— Hankak eta non arrimaturik ibili ote zuan!
—esan zuen Billabillak.

EGURGILEAREN BIRAOA

San Antonio Txiki izeneko ermitaren goi aldean egu-
rra egiten ari zen mendaroar bat. Egurra zehatu eta za-

kuetan sartzen ari zelarik, zakukada bat goitik behera abiatu zitzaion, aldapa bizia izaki. Okerrena zakukada egurra berari katigatu zitzaiola abarkatik edo praktikatik eta ermita ondoraino bueltaka heldu ziren zaku eta biak. Egurgilea tentetu zenean, birao hauxe bota zuen:

**San Antonio Txiki bete orratz
haiekin josiala zaku,
hainbat mila demoniok
eramango ahal hau!**

KAREGILEAREN BIRAOA

Jose Lizundiak bazuen karobi bat, orduan etxe askotan zen bezala. Karea egiten zuten, lurrak hartaz erretzeko eta ontzeko. Karobia otez inguratzen zuten. Otea zen errekin. Behin haize haundi batek errekin guztia eraman zion Jose Lizundiari. Hona zer birao bota zuen, karobia hala ikustean:

— Arraioa! Ipar euria zerratu den tamainuan libra biko harria egin balu, nahiago nian haize madarikatu hura baino!

FALTA DUK MANUEL

Maria izeneko neska eder bat, Lasturkoa bera, etxerik etxe jostun ibiltzen zen. Neska hura ederra baldin bazen, Kortabarriko Manuel ere mutil ederra zen. Beste mutilak ere neska haren atzetik omen zebiltzan. Manuel, igandeetan, mezatara joan eta eguna tabernan eginik etxeratzen zen. Igande batez, ordea, neska hura Kortabarrira jostera etortzekoa zen, bezperan anaia gazteagoak mandatu eginik. Baina neskak ezin zuela esan zuen. Manuelek ezetz horren berririk ez zekien eta igande eguerdian etxera azaldu zen, sekula egiten ez zuena. Anaien artean bazen bat gizajo samarra eta, Manuel atean sartzean, hots egin zion:

— Falta duk, Manuel!

LIZARROLAKO MORROIA

Lizarrola baserrian bazen morroi bat, mutil haundia eta jatun haundiagoa bera. Ugazaba eta biak basora joan ziren. Gosaltzeko artoa eraman zuen ugazabak. Arto hirinez eginiko opila edo ogi gorria. Gosaltzen hasi ziren eta ugazabak artoa ebakitzen zuen. Ebaki eta ebaki eta morroiak jan eta jan. Hala arto guztia

jan arte. Ugazaba ez zen hain osasuntsua. Gaiso edo makal samar zebilen eta morroiaren apetituak ernega erazi zuen.

— Hauek denok jateko animurik ba al daukak?
—galdetu zion.

— Bai! Ez daukagu, ba, entrama txarra ere —erantzun zuen morroiak.

— Nazka ematen dik —kontatzen zuen gero ugazabak—. Katilukada esnearen gainetik, basokada sagardoa edaten dik. Nik ez diat ikusiko, baina biziak ikusiko diate eta ez dik pintatuko horrek.

OIARTZUN - GIPUZKOA

JOAKIN URDIÑA

Joakin Urdiña bezain gizon popularrik gutxi izango da Oiartzunen. Bazuen almatzen bat eta ikatza banatzen zuen. Garraiorako lehenago zaldiz edo mandoz eta gero autoaren jabe egin zen. Hogeita hamairugarrenean atera omen zuen karneta. Hogeita hamaikagarrenean teorika aprobatu zuen eta hura poza. Baina esan zioten:

— Ahora tiene que hacer ciudad.

— Ciudad? —hotsegín zuen Joakin Urdiñak—. Ez, ez. Nik herrian ibiltzeko bakarrik behar dut karneta.

DONOSTIAN DENAK EZAGUNAK

Herrian bakarrik ibili behar zuela, baina hirirako ere balio zuenez gero, behin Joakin Urdiña Donostia-ra abiatu zen bere autoan. Hark lehenago ezagutzen zuenaz konparaturik, aldakuntza handiak ziren han, barianteak eta abar. Behintzat gure gizona, bariante batean, okerreko bidetik sartu zen. Norabide (direkzio) debekatua hartu zuen. Aurrez zetozenak «pi-pi-pi» hasi ziren denak, klasona galdu-gordean jotzen. Pentsa nolako eskandalua eta nolako arriskua ere. Joakin Urdiñak pentsatu zuen:

— Joño! Hauxe duk harrigarria. Behin Donostia-ra abiatu eta denak ezagunak.

Klasonak jo eta jo ari baitziren, Joakin Urdiñak pentsatu zuen berak ere, gizalegez, kasu egin behar zuela. Esku bata leihotik atera eta «Eup!, Eup!» egiten zien denei. Hainbeste ezagun gertatzea harrigarria bazen, istripurik gertatu gabe salbatzea harrigarriagoa izan zen.

BURUZ ETA ASTOZ

Oiartzungo amona bat marmita edo saskia buruan zuela ibiltzen zen. Kargak eramateko ohitura handia

zen hori emakumeengan. Nonbait amona hura astoaren jabe egin zen eta esan zioten:

— Indartzen ari zara, amona. Lehenago buruz eta orain astoz.

— Ez, ez! —erantzun zuen amonak—. Lehenago astoz eta orain buruz.

SUDURRA ETA BELARRIAK

Kaskazuri famatua eta oraingo Lezotiren osaba igande goizez seiretako mezatara joan ziren. Lezotik belarri handiak omen zituen. Kaskazurik berriz sudurra ardo kolorez gorritua. Meza ondoren estankura joan ziren eta Lezotik esan zuen:

— Eh! Hire sudurra bezalako biper morroak ez lituzkek gaizki gure baratzean.

— Bai ederki ere —erantzun zion Kaskazurik— hire belarriak ainako hostoekin.

LANA LOTUTA

Pillipo oiartzuarra argi lineako goarda zen. Jai eguerdi batez nonbait aberiaren bat izan zen eta lineari segika zihoan.

— Zer da Pillipo? Aberiekin?

— Ez alajaina! Gaur oinez —erantzun zuen Pillipok. «Aberiak» eta «abereak» hitz jokoa.

Beste igande batez ere lanean ari zen, poste puntarra igona eta uhalez lotua.

— Zer Pillipo? —esan zion norbaitek—. Ez al dakizu gaur ez dela lana libre?

— Horrexegatik egiten diat lotuta —erantzun zuen Pillipok.

AITAK ALA ZEZENAK

Oiartzungo baserritar batek bazituen hiru alaba. Gizona pixka bat ezindua zen. Behi bat susaratu zen eta alaba bati esan zion:

— Karmen, hartu behia sokatik eta eraman zezenari. Neska bazihoan, behia sokatik harturik.

— Nora zoaz? —galdetu zion bidean apaizak.

— Aitak bidali nau.

— Baina hori ez al zezakeen aitak egin? —berriz ere apaizak.

— Ez. Hori aitak esaten du zezenak egin behar duela —erantzun zuen neskatilak.

KONKORDUNA ETA TOTELA

Oiartzungo bi mutili soldadutzatik libratzeko azterketa egin zieten. Bata konkorduna zen eta bestea tote-la. Konkordunari kax-kax bizkarra jo zioten eta han zeukan berea. Bestea ere zeukan baino toteltasun gehiago erakusten saiatu zen. Gero kanpoan:

— Zertan ari hintzen? Arbia ereiten? —galdetu zion konkordunak totelari, zen baino totelago hitzegin zuelako.

— Bai! —erantzun zuen totelak—. A-aitu diat aurretik zo-zokilak jotzen.

BELARRAK ERDIRA

Oiartzungo Iturriotzen, Joxe belarra ebakitzen ari zen, ontzeko.

— Koño, Joxe! —esan zion auzo batek—. Ari al haiz belarra ebakitzen?

— He-hementxe —erantzun zuen besteak, total samarra baitzen.

— Nahi baduk, erdira zabalduko ditiat —proposatu zion. Zabaltzeagatik, belarrak erdi bana, alegia.

— Ez, ez —moztu zion ebakitzailerak—. Bi bazterretara za-zabaldu be-behar ditiat.

GOSEA ETA ERRESPETUA

Gerra garaia zen eta gainera familia pobrea. Oiartzungo etxe batean gertatua da hau. Aita biagotik jai-ki eta su ondoan eseri zen. Beheko suaren ondoan. Gal-tza zaharrak zirela edo lotu gabe zeuzkala, behintzat dokumentuak agirian zeuzkan. Etxeko mutil koxkorrak pilota batekin jolasean ari ziren. Hiru edo lau mutiko, gosea baino bizkorragoak. Pilota su ondora joan zen. Mutiko bat hartzera joan zenean, aitaren hankapetik sartu zen eta zintzilikari haiek ikustean, galdetu zion:

— Aita! Aita! Zer dira horiek?

— Los cojones! —erantzun zuen aitak.

Andreak entzun zuen eta mutikoa bistatik aldendu zenean, gizonari agiraka egin zion:

— Hori al da errespetua, haurrei hitzegiteko?

— Zer esan behar dien, ba? —hotsegin zuen gizonak—. Esaien horiei, daukaten gosearekin, arraultzeak direla.

ITURRINE, SANTA KRUZEN GOARDIAKOA

Oiartzunen bada Iturrine izeneko toki bat, Iturrineko arku dagoena. Arku hori lehengo Iturrine baserri etxearen atea zen. Etxea erori zen eta arku eder hori bakarrik geratzen da gaur, larrak eta sugandilak bertan nagusi direla. Iturrinen aintzina sagardotegi famatuak ziren. Karlista gerran oiartzuarrik famatuenetariko bat hangoa zen: Manuel Elola, Santa Kruz apaiaren goardiakoa izana. Ez zen gerrarako bakarrik balio zuena, hiru aldiz ezkondu baitzen. Arregiko «Beltxak» bultzatu zuen gerrara eta berak eramane zuen Santa Kruzengana. Hona zer kontaturik utzi zuen, duela urte asko hila den agure honek:

1873ko urtarrila zen. Traidore asko zebilen Santa Kruz salatu nahirik. Haren lepoa bai karlistek eta bai

liberalek eskatzen zuten, baina hura ez zen bildurtzen. Goardiakoek argi ibili behar genuen. Tarteka bera bakarrik herrietara jaisten zen, ea berarengatik zer esaten zuten. Behin Tolosan agertu zen, ikazkin jantzirik. Taberna batean jan eta gero kafetegira joan zen. Kafetegia nazionalez eta mikeletez beterik zegoen. Gure nagusia (Santa Kruz), itxura apala eginez, teniente batekin hizketan hasi zen.

— Zer? Lan asko, teniente jauna?

— Askok bai asko! —esan zuen tenienteak haserrez—. Eta dena Santa Kruz madarikatu horrexen erruz. Ez al duzue menditik ikusten?

— Inoiz bai.

— Eta zer ibilera darabil?

— Psss! Batzutan alde batera eta beste batzutan bestera.

Berriketaldi bat egin ondoren, elkar agurtu zuten. Nagusia gurekin itzuli zen eta gero ofizial hari eskutitz bat idatzi zion, kafetegiko ikazkin hura bera izan zela esanez. Eskutitza honelaxe amaitzen zuen:

— Zer ibilera darabilgun jakin nahi baldin baduzu, zatoz mendira ikustera.

SOLDATA BEZALAKO LANA

Joxe Manuel Urbieta haroztegian lanean zebilen. Egun batez, etxe berri bateko zoluan oholtza bat ipin-

tzen ari zen. Beti kexuz ari zen, nagusiak lan asko agindu eta gutxi ordaintzen ziola esanez. Behin nagusiaren semea etorri zen eta nonbait txikia iruditu zitzaion bezperatik ordurarte eginiko lana. Esan zuen:

— Oraindik horrela? Atzo ere ia berdin zinen.

Larunbata zen eta langileak kobratu berri zeuden. Joxe Manuelek soldata sobrea atera eta esan zuen:

— Eta hau? Ikusten al duk hau? Hau ere joan zen larunbatean berdina zuan.

ORTZAIZE - NAFARROA BEHEREA

TXAKURRAREN MATRIKULA

Martin eta Kaiet beti elkarrekin eta beti haserreturik ibiltzen ziren. Behin Kaieten txakurra euritan zegoen eta Martinek esan zion:

— Hi, segur nauk ez dakiala zer matrikula duen hire txakur horrek.

— Bai gizona! —erantzun zion Kaietek—. Buztanaren azpian «o». Haren azpian «i». Horrek irudi liket «hi». (Beraz, arra zela esan nahi zion, hi bezalakoa).

XERMENEN TALENTUA

Xermen pixka bat totela edo tartamutua zen. Behin mezara zihoala, Peio baratzean lanean ari zen eta Peio horrek baratzetik adar joka esan zion:

— Aizak. Hasia al duk buzoka pasea?

Buzoka txori beltz handi edo arrunt bat da eta Xermenek erantzun:

— Bai! —o-ohartua naiz ba-badirela ba-baratzean ere fi-finkatuak (geratuak).

Beste behin Xermenek etxe batetan lan pixka bat egin zuen eta xingarra (urdaiazpikoa) atera zioten jaketako. Xermenek nahi baino meheago ebakia zen hura eta xingarra begien parean jarririk, esan zuen, handik ikusten balu bezala:

— To! Auzokoak lanean ari dira.

PEIO ETA BATITA

Behin Peio Abadiano buhameak eta Batita Haizemendikoak honelako solasaldia ukan zuten:

— Orain eguzkia ez duk lehen bezala jaikitzen —hasi zen Peio.

— Guk ez dugu ikusten, lainoak baitaude.

- Mundua nahasi duk. Ez diat deus konprenitzen.
- Bart ilargira joan dira —esan zuen Batitak.
- Bah! Ez duk egia. Esan ere!
- Ba al dakizu ilargia bueltaka ari dela lurraren inguruan?
- Ez. Ez diat sinetsiko hori, ni bizi naizeno.
- Gure lurra ere ilargia bezain biribila da.
- Peio bildurtzen hasi zen. Ez zuen horrelakorik sekula entzun.
- Nik esaten badiat bihar Ortzaize Baigorri dela, sinetsiko al huke?
- Bai probak ematen badizkidazu —bukatu zuen Batitak.

MARIII, OOO MARI!

Antonio mendi puntan zegoen eta Mariren etxea han behean. Mutilak aurreko egun batez erabilitako ezkontze kontuari buruz baietz esan nahi zion. Baina ez zuen besteek ulertzerik ere nahi eta honela oihu egin zuen:

— Mariiii! Ooo Mari! Besteko komisio hura izango dela!

Marik ederki ulertu zuen. Laster ezkondu ziren.

U.E.U. - IRUÑEA

AGAPITO ETA ORDOKI **(Donostia)**

Egia auzoan badira bi gizon famatu: Agapito eta Ordoki. Agapito herrena duzu eta Ordoki berriz pixka bat begi ezkela. Agapito Atotxaruntz zihoala, Ordokirekin topo egin zuen eta honek esan zion:

— Gaizki habil, Agapito. Bahabil, baina gaizki.

— Ba, hi ere —erantzun zion Agapitok—, ikusten dukan moduan baldin bahoa, ai zer kolpea hartu behar dukan lehen bazterrarekin.

AMIGO ETA USTI **(Zumarraga - Gipuzkoa)**

«Amigo» Eitza auzoko pertsonaia famatua zen. Edanarekin ez zen ederki ibiltzen, baina edan gabe gaizkiago. Behin haren emaztea Andres Olaetxearengana joan zen, aholkua eskatzera. Ea senarrari ardo zaletasuna nola kendu eta abar. Andresek behin Amigo aurkitu zuen eta esan zion:

— Amigo, behiek ere, nahikoa edaten dutenean, edateari uzten ziotek.

— Ai zer gauza bitxia! —erantzun zion Amigok—. Niri ere urarekin gauza bera gertatzen zaidak.

Usti oso langilea eta bizia zen. Eitzako lantegi batean lan egiten zuen. Behin Ustik orgatxo (karretila) bat zakarkeriekin zeraman. Nagusia albotik pasatu zen eta esan zion:

— Aizak hi! Hor zerbait gehiago sartzen duk!

— Bai hileko sobrean ere —erantzun zion Ustik.

LAPURRAK ETA POLITIKOAK **(Santurtzi - Bizkaia)**

Behin politiko ospetsu bat Santurtzira etorri zen. Ohi zen bezala, abegi herrikoia prestatu zegoen. Sar-

dina saltzailearen oroigailura segizioa heldu zen. Han arrantzale jator bat politikoari ongi etorria emateko zegoen. Arrantzalea nahiko zaharra zen eta soinekoak zahar samarrak eta arrantza usainez zeuzkan. Politikoa, ordea, garbi eta dotore jantzirik zegoen. Arrantzalearen besarkadak eta musuak hartu ondoren, esan zuen:

— Zenbat denbora da oroigailu hori bezalako arrantzale eder eta atseginak galdu zirela?

— Urte asko, jauna —erantzun zion emakume batek—. Lapurrei politikoak deitzen hasi zirenetik.

ASTO GEREIÑO HANDIA **(Irisarri - Behe Nafarroa)**

Duela laurogeiren bat urte, Garazi aldetik Irisarri-
ra ezkondu zen gizon emaztekari bat. Emaztekaria edo
emakumezalea, Garazi aldean jada bereak eginak zi-
tuena. Orduko «Eskualduna» astekariko idazleak be-
rri hau ematerakoan, hauxe jarri zuen:

— Joan den larunbatean, Irisarriko Garralde etxeak
erosi du, Garazi aldetik, asto gereiño(ar) bat handia;
etxeke eta auzoko lanak urririk (debalde) eginen di-
tuena.

GEZURRIK EGIAZKOENA **(Munitibar - Bizkaia)**

Munitibarko plazan jokoa edo dema edo zerbait aterra zuten, ea gezurrik haundiena nork esaten zuen. Gizon batek Oiz mendira begira jarri eta esan zuen:

— Hi! Han, inarra artean dagoen inurria ikusten duk?

— Ez, ez diat ikusten —erantzun zion besteak—. Non zegok, ba?

— Bai, gizona! Oizko ermitaren beheko aldean, iturri partera.

Beste munitibartarra oin puntetan tente tente jarri-rik, begiak zimur zimur ipini eta hots egin zuen:

— Bai, gizona! Egia duk. Begibakarra gainera.

ARRAULTZE LAPUR TREBEA **(Gasteiz - Araba)**

Bazen aintzinako gasteiztar bat, ahal bezala bizi-modua ateratzen zuena. Gehienez inoren bizkarretik edo sakeletik ateratzen zuen. Behar duenak asko asmatu behar eta hala behin albo herri batetik Gasteizko azokara zetorren bat ikusi zuen. Oinez zetorren gizona,

dozena batzuk arraultze saltzera. Gasteiztarra hurbildu zitzaion eta galdetu zion:

— Nora zoaz, gizona?

— Azokara, arraultze hauexek saltzera.

— Neuk erosiko dizkizut batzuk. Zenbat dituzu?

— Bost dozena. Aspaldion oiloak ez dabiltza bate-re atzezabal.

— Lau dozena erosteko asmoa nuen, baina, bat gorabehera, denak erosiko dizkizut.

Arraultze saltzaileak ez zuen sinesten ere halako suerterik. Arraultze guztiak saldu, joan-etorria aurreztu eta denbora ere bai.

Otzarea (saskia) lurrean utzi eta kontatzen hasi ziren. Erosleak saltzailearen mantalean uzten zituen arraultzeak, hark bi eskuz eusten zielarik. Hiru, sei, bederatzi, hamabi. Hiru, sei, bederatzi, hamabi. Orduan erosleak otzarea hartu eta ihesari eman zion, hango hiru dozena arraultzeak zeramatzala. Saltzailea bi dozena arraultzeak altzoan zituela geratu zen. Ezin eskurik jaragin, arraultze haiek eroriko baitzitzaizkion eta, beraz, ezin atzetik segitu. Denbora gutxiko suertea izan zuen.

ZALDIBIA - GIPUZKOA

OSKARBIA TRUMOIA

Pello Iraola parranda ederra eginda etxeratu zen halako batean. Emazteak zalaparta galanta atera omen zion, gelara sartu zenean. Pellok ez zuen hitzik egin. Ganbarara igon, erramu bedeinkatua ekarri eta sua egiten hasi zen. Erramu bedeinkatua trumoiaren kontra-koa izaten da. Aitona itzartu zen eta Pellori galdetu zion:

— Zertan habil, mutil?

— Trumoia ari baitu —erantzun zion Pellok. Aitonak orduan:

— Trumoia nola izango duk, ba, oskarbi baitago? Pellok erantzun zion:

— Joan zaitez gure koartura eta ikusi.

PELLO BERTSOLARI

Pello Iraola bertsolaria zen. Egun hartan Uztapide eta Basarrirekin kantatu zuen Zaldibin. Gero afaldu, partida bat bota eta Pellok agur egin zuen, etxerako ustez. Baina pentsamentuak aldaturik, berriro tabernara azaldu zen eta erdi-erdian jarri zen. Besteek berari ekiten zioten, etxera joan behar zuela baina han zegoela eta abar. Uztapideren ondoren, Pellok bertso hauxe kantatu zuen:

**Hauxen esan behar det
hementxe jarrita
guztiok badakigu
alkarren berri-ta.
Etxera joan ezkeru
seguru errita
ta orain joatea
alper-alperri ta.**

Beste behin ere gaueko orduak aurrera zihoazen eta Uztapidek Pellori bertso bat bota zion, andrea farolarekin bila etorriko zitzaiola esanez. Orduan Pellok bertso hauxe kantatu zuen:

**Hemen ere badago
salatia franko
neri holako gauza
gerta zaidalako.
Andreakin bidean
eiten badet topo
etortzen bada ere
maite nauelako.**

APRETA ETA HANKA

Biandetxe famatuarenak beste egun batetan eman-go baditugu ere, hona hemen bat, hura nolakoa zen aurreratzeko. Biandetxe jokogile trebea zen. Ostatuan zeuden. Apretak (abarketak) oinetako onak zirela eta hala ari ziren. Biandetxeri zer zenbaki jazten zuen galdetu zioten eta hogeita sei erantzun zuen. Txatok esan zuen:

— Nik hogeita zazpi erabiltzen diat, baina hogeita sei ere sartzen diat hankan.

Biandetxek ezetz apustu egin zion. Berotu zen Txato eta erronda bat jokatu. Mikelak hogeitaseiko apreta pareta atera zuen eta Txatok:

— Ikusten nola sartzen dudan?

Biandetxek orduan esan zuen:

— Hik ez duk apreta hankan sartu. Hanka sartu duk apretan.

AHUNTZAK

Biandetxek etxe batean ikuiluko ate markoak «trankatu» zituen. Biharamonean «trankeroak» norbaitek mugiturik zeuden. Trankeroak ate markoak sartzeko

oinak dira eta trankatzea trankeroak egitea. Biharamo-
nean Biandetxek ikusi zuen, baina isilik zegoen. Gero
ganadu asken banakuntza edo partizioa egin behar zen,
aska berriak egiteko. Nagusiak esan zuen:

— Partizioa egin beharko dugu.

— Atzo ere baduk egina eta egin ezak herorrek
—esan zuen Biandetxek.

Geroago askak markatzen ari ziren. Nagusiak esan
zion:

— Biandetxe, ea zer iruditzen zaizun.

Aska bat oso txikia ikusi zuen Biandetxek eta esan
zuen:

— Kristo Dios! Hemen zer jarri behar duk? Ahuntza
edo?

Gero Teletxon biak berotu ziren eta Biandetxek esan
zion:

— Hik andrea hartuko duk jatorra eta ederra, bai-
na hala ere ez haiz gizonduko.

TEILATUAK

Biandetxe simaurra eramaten ari zen goiko baserri-
tik behera. Tarte bat oso txarra zegoen eta gurkada pix-
ka bat hustutzen zuen eta aurrera. Hala sei tokitan. Le-
hengo gizon horri teilak eskatu zizkion, simaurra es-

taltzeko. Oilategia ere haren teilekin zeukan. Behin ha-
serretu ziren eta gizon hark sei simaur piletako eta oila-
tegiko teilak mandoarekin eraman zituen. Biandetxek
esan zuen:

— Kristo Dios! Horrek egin dik marka. Zazpi etxe-
ri teilatua kenduta utzi nau egun batean.

NOLAKO MANTENUA

Mataza zeritzan batentzat borda bat egin behar zuen
Biandetxek. Orduko honenbeste eta eguneko mantenua
hitzegin zuten. Astelehenean lanera joan ziren eta saio
bat egin ondoren, Matazak esan zuen:

— Goazen hamarretakoa egitera.

Biandetxe: —Gosaldu noiz egin behar dugu, ba?

Mataza: —Ez genuen, ba, guk gosaririk aipatu.

Biandetxe: —Gosaria ez al da, ba, mantenua?

Gero bazkaldu zuten, arratsaldeko lanaldia egin zu-
ten eta iluntzean nagusiak esan zuen:

— Beno, gau on.

— Onak gaude gau ona pasatzeko, afaldu gabe
—esan zuen Biandetxek.

Gero Biandetxek lagun batzuri esan zien:

— Hau Mataza ez, Maltraza duk.

ARTZAIN BATEKIN BURRUKAN

Biandetxeren baso mutur batean artzain batek, ezer esan gabe, ardiak erabiltzen zituen. Behin Biandetxe haizkora txikia hartu eta erreondora joan zen. Esan zion:

— Kristo Dios! Aspaldian hemen habil, baina gaur ez haiz pasatuko, ba!

— Bai zuregatik —esan zuen artzainak.

Batak ardiak aurrera eta besteak atzera bota, deman ari ziren. Baita burrukan hasi ere. Besteak Biandetxe azpian hartu zuen eta zintzurretik heldurik zeukan. Biandetxek esan zion:

— Kristo Dios! Gazta hori baino hobeto estutzen ez baduk, gatzura geldituko zaiok.

ZEANURI - BIZKAIA

NEURRIKO BENGANTZA

Ipiñaburutar batek idi pareta erosi zuen. Gaitzik edo tatxarik zuten galdetzean, saltzaileak esan zion:

— Elkar ikusi ezina dute, baina bestela ederki daude.

— Hori baino ez bada, ikasiko dute.

Baina idiek elkar ez ezik ez zuten askarik ez ormarik ikusten. Itsuak ziren. Hurrengo larunbatean aita-semeak feriara joan ziren, okerra bengatzekotan. Feriaren erdian gizonak gurdi gain batetik hots egin zuen:

— Mal hombre! Malas comportaciones! Errakuntza!

— Aita, besterik ez? —galdetu zion semeak hartan bukatzen zela ikustean. Aitak erantzun zuen:

— Belarriak zabalik baldin baditu, nahikoa entzun dik.

GREGORIO ETA EBARISTO

Polosanta Egileorkoak bi seme zituen, Gregorio eta Ebaristo. Bi bilbotar Gorbearantz zihoazen. Mutikoak bidean aurkiturik:

— Cómo se llaman esas peñas? —galdetu zieten.

— Gregorio eta Ebaristo —erantzun zuten mutikoek.

— Y vosotros? —berriro ere bilbotarrek.

— Legordui eta Lekanda —esan zuten mutikoek.

Gorbeako bi haitzen izenak dira horiek. Mutikoak etxeratzean, aitari «peña» zer zen galdetu zioten.

— Galdetzea ere! Behi ernaria, mutil! —erantzun zuen aitak. «Peñá» esan nahi zuen aitak. Etxe hartan ere bazen eskola pixka bat.

TRANBIA ZAHARREAN

Periko ipiñaburutarrak zazpiren bat ordu egiten zituena lanera joanetorrian, Galdakaoko dinamitara. Oinez ordubete eta gainerakoa tranbian. Lorik gehiena tranbian egiten zuen, goizeko lauretan sartuta. Gure gizonak hortzadura berria jarri zuen. Beti bezala, lo zihoan tranbiako leiho kontrara. Alarma jo zuen:

— Eh! Hortzak galdu ditut. Hemen ez daude eta leihotik behera eroriko ziren.

Tranbiari atzera eman eta kilometro bat egin zuten, Periko oinez zihoala. Baita aurkitu ere. Tranbia betarik zihoan, baina inork ez zuen protestatu. Beste garai batzu ziren haiek.

Bazen beste gizon bat anega erdiko zakua Bilbotik bizkarrean ekarri zuena. Tranbian, baina bizkarrean, ez ordaintzeagatik.

ZEBERIO - BIZKAIA

«MALESTUDIANTE»REN KARRERA

Zeberioako mutiko bat, beste asko bezala, apezgai bidali zuten. Behin, oporretan etxeratu zenean, goiko gelan zegoen. Aita behean zegoen, eta ez zekien mutila goian zegoenik. Harlauzak jaso eta hamaseiko gorriak gordetzen ari zen aita. Apezgaiak ohol zirritutik begiratu eta hori ikustean, esan zuen:

— To! Horiek lurpean eta ni ikasten?

Halaxe utzi zuen karrera eta halaxe irabazi «Malestudiante» goitizena.

TRENA ALKILATURIK MADRILERA

«Malestudiante» demanda gogorrearan zebilen. Tren espezial bat alkilatu zuen Madrilerako. Madrilgo geltokiko maletariak harriturik zeuden, trenean gizon bakarra zetorrela ikusirik. «Malestudiante» Romanones kondearengana joan zen eta haren karta bat zekarren bueltan. Durangoko epailearengana joan eta epailea lo zegoela esan zioten.

— Baina non lo? —ekin zion gogor.

Ez zuten epailearen logelara eramateaz beste erremediorik. «Malestudiantek» epailearen logelako atepetik karta bota zuen. Gero atea jo eta esan zuen:

— Lea lo que pone ahí.

Halaxe irabazi zuen demanda.

GORPU BAT ETA GORPU BI

Apez berria zen. Berria eta Zeberiora joan berria. Urrungo baserri batetan norbait hil zen. Gizon bat etorri eta apez berriari galdetu zion:

— Gorpua berorrek ekarri behar al du?

Apezak baietz erantzutean, gizonak esan zuen:

— Ba, gure labe ondolik ez pasa, beste gorpu bat

izango ez bada.

Apez berria bildurrez joan zen. Gizon batek hauxe eta hauxe esan ziola norbaiti azaldu zion. Hautua aho-
petik pixka bat zabaldu zen eta esan zuten:

— Ba, orain handixek pasatuko gara.

Apezak ez omen zuen bide luzean laberik ikusi, ha-
lako bildurra baitzeraman. Hura lasaitasuna, kanpo-
santura heltzean.

ZEGAMA - GIPUZKOA

MIRARI ERREZA

Behin Don Alfonso apaizak sermoitan aldrebes esan zuen:

— Jesukristok bost mila eskailuz zazpi lagunei jaten eman zion.

Ikazkin batek bankutik:

— Hori neuk ere egingo nitek.

Hurrengo igandean apaizak zuzen kontatu zuen eta ikazkinari galdetu:

— Hik egingo al huke hori?

Eta ikazkinak erantzun:

— Bai, joan zen igandean sobratutakoekin.

GOIENeko AXENTXIO

Duela urte batzu hila den Axentxiok ere biribilak kontatzen zituen. Hona batzuk:

Behin kartutxoak gastatu eta etxera nentorrela, erbi bat ikusi nuen arbola orpoan, belarriak tente. Iltze bat atera eta huraxe tiratu nion. Erbia arbolatik josia geratu zen. Hartu eta bizirik ekarri nuen.

Beste behin ere kartutxoak gastatu zitzaizkidan. Uso talde bat ikusi nuen eta ezkur batekin tiratu nien. Bat jo nuen eta hala-hola joan zen, baina ez zen erori. Hurrengo urtean uso bat pasatzen ikusi nuen, haritz landarea belarritik zeramala.

Ez zen txikiagoa bi erbi bizirik ekarri nituena. Kartutxoak gastatu eta hain zuzen orduantxe bi erbi ikusi. Bizkarrean neraman zahatoa hautsi eta barruko pikearekin tiratu nien, bolatxoak eginda. Erbi bat bekokian jo nuen. Besteak sustoz buelta hartu zuen, elkar jo zuten eta biak bekokitik itsatsirik geratu ziren.

PERTZA ETA ARIMA

Gizon txiki bat Irundik Zegamara etortzen zen pertzak saltzera. Amona batek pertz bat erosi zion, hu-

rrengoan pagatzeko utzirik. Baina gero pagatu ziola esaten hasi zen. Pertz saltzaileak auzia eman zuen eta biak udaletxera eraman zituzten. Alkateak amonari galde-tu zion:

— Egitan pagatu baldin baduzu, emango al zenio-ke mun gurutze honi?

Eta amonak:

— Bai oso bero ez badago.

Gizon txikiak auzia galdu zuen eta kanporantzean amonari esan zion:

— Galdu dun hire arima beltza!

— Bai eta hik ere pertza —erantzun zion amonak.

ITSASOA, EURIA ETA SUA

Goazen orain Antonio Bolasengana. Eguna zer lanetan eman zuen galdetu zioten eta Antoniok erantzun:

— Gaur itsaso azpian baldosak ipintzen ibili naiz.

Beste behin:

— Aizu Antonio. Ibiliko al zinateke zu ur gainean?

— Bai euria egiten duenean.

Hau ere kontatu zuen Antoniok:

— Behin ibaia suak hartu zuen, Olaberriko Yurre ondoan. Eskerrak han gasolindegi bat badela eta mangera bertara jarririk, berehalaxe itzali zuten.

ZIZURKIL - GIPUZKOA

MEDIKU KURIOSOA

Bazen mediku famatu bat, Don Jose Espartza zerritzana, sendatzen aina trebetasun hizketan zeukana. Nahiko adineko emakume bat gaizki zegoen, aurpegia dizipulaz handiturik. Medikua joan zitzaion eta galdetu zion:

— Zer moduz, neska?

— Mejararik bat ere ez, jauna —erantzun zion andre gaixoak.

— Motel, motel! —hotsegin zion medikuak andre eriaren senarrari—. Atso zahar hau neuk hilko diat. Hi oraindik gizon polita hago eta bilatuko duk berria.

Animu ederrak eman zizkion emakumeari. Gaizki zegoen beste gizon batengana joanik ere, honela sartu omen zen etxean medikua:

— Qué hay basurde? Jabalí! Hik asko jan eta orain hil egin behar.

Medikuak ez zuen hain gaizki zegoenik uste, baina biharamonean hil omen zen gizona. Gehienez hizketak zakarreko medikuak sendatzaile onak izaten dira eta hau ere hala omen zen.

SATURDINO TXARTELETARA

Saturdino txarteletara joan zen Asteasuko apaizarengana.

— Etorri al haiz, Saturdino? —galdetu zion apaizak.

— Bai, jauna. Etorri naiz eta hemen nago —erantzun zion Saturdinok.

— Ea! Esan ezak Aita Gurea.

— Hori niretzat gehiegi izango da.

— Begira ezak behera.

— Behera begiratzen dugu, bai, zuen etxera eta errotetxera.

Saturdinoren etxetik apaizaren etxea eta errota beheko aldean ikusten ziren eta ez zebilen gaizki.

— Hik eroa nondik duk hainbeste? —galdetu zion berriz apaizak—. Aitaren aldetik ala amaren aldetik?

— Bietatik pixka bana, jauna —erantzun zuen Saturdinok.

IJITUA ETA APAIZA

Ijitu batek haurra izan zuen. Haien ohituren araber, errekan sartu zuen haurra buruz behera, hitz hauek esanez:

— Gogortu, gogortu, kaska gogorra! Joan Batis-ta, putzuan zizta!

Gero herrian inskribatzera ekarri zuen haurra, baita elizan bataiatzera ere. Hala egiten omen zuten ijituek. Baina oraingoan ijitu aitak berak ere jaunartzea pentsatu zuen eta horretarako aurretik aitortu egin behar. Konfesioa hasi zen eta:

— Zer ostu duzu? —galdetu zuen apaizak.

— Bi oilo bakarrik —erantzun zuen ijituak.

— Horiek ordaindu egin behar dituzu.

— Jan genituen, ordea. Andreari salda eta guk okela jan genuen.

— Ba, hori ordaindu beharra dago —ekin zion apaizak.

— Nola baina? Lotsa naiz orain etxe hartara joaten.

— Eman niri. Neuk emango diot oilo jabeari.

Ijituak etsi zuen eta zilarrezko duro bat eman zion apaizari pena handiz. Konfesioa bukatutakoan, apaiza goiko ostatura joan zen eta «Hebra» bat eskatu zuen. Tabako mota baten marka zen hau. Ordaintzeko, duro huraxe bota zuen gainera.

— Hau faltsua da! —hotsegin zuen ostatuko andreak.

— Bazekinat nork eman didan! —esan zuen apai-

zak—. Bihar goizean nik ematen diodan hostia ez din, ba, eztarriko zuloan behera pasatuko.

Biharamonean, ijitua zintzo etorri zen haurra baitaiatzera eta jaunartzera. Apaizak komuniotzat zapa-ta kutxaren kartoi puska bat eman zion, poliki biribildua. Ijitu gaixoak ateaz kanpoan ere ezin zuen puska hura irentsi.

— Zer ematen diate hor? —galdetu zion lagun bati.

— Jesukristoren gorputza.

— Orduan niri bizkarhezurreko pusketa tokatu zaidak.

KABEN DIOS!

Asteasuar bat Errezila joan zen andregai bila. Bila joan eta topatu ere bai noski. Andregaiaren aita elizkoi fina eta erlijio handikoa omen zen. Hirugarren ordenakoa zen eta hilero kordioak eta eskapulario handiak jantzirik izaten zen elizan, hartarako igandean. Auzoko errezildar batek zera esan zuen behin lagun artean:

— Kaben Dios! Gorri zahar hau fina dela esango duzue. Faltsu alua duk hau. Ogi puska bat jateagatik, asto sokak jantzita joango lukek.

Beste behin harriaren edo kazkabarraren kontrako

konjuruak ziren eta gizon elizkoi hark beste errezildar honi elizarako gonbita egin zion, esanez:

— Goazemak, mutil, goazemak. Harria ez duk txantxetakoa.

— Kaben Dios! —erantzun zion besteak—. Joan hadi herori. Zuenean erortzen ez bada, gurean ere ez duk eroriko.

Asteasuarra bere andregaiarenerutz zihoan batean, errezildar hau bere mutikoarekin soroan ari zen eta mutikoak galdetu:

— Aita, zein dago urrunago? Zumaia ala Madril?

— Kaben Dios mila bider! Haizen beste hainbeste luze bahintz ere, motza izango hintzateke —erantzun zion gizonak.

Bere haitzurrarekin lanean jarraitu zuen eta gero-geago esan omen zion:

— Motel! Zumaia hementxe zegok hankapean. San Sebastian Madril otxenta kilometros!

Informazio ederra eraman zuen asteasuarrak etxera.

KEREXETA ERREZILGOA

Kerexeta Errezildarra bazen ere, Zizurkilen entzun genituen honen pasadizoak, hango neska batekin ez-konduriko asteasuar baten bidez. Kerexetari andrea hil

zitzaion, sasoikoa eta bikaina. Atsekabea kentzeko, pika bat edan egin omen zuen eta ezin zen sosegatu.

— Gure Jainkoa ez da gizona. Nork esan du Jainkoa gizona dela? Hau familiarik kendu! Hau pieza! Hau zuloa!

Gizon batek albotik, kontsolatu nahirik, esan zion:

— Hoiek pasatu egin behar dituk. Neuri ere hola-xe galdu zitzaidan.

— Zer esaten duk, mutil? —hotsegin zuen Kerexetak—. Hirea usteldua zegok.

ARDIAK KONTATZEN

Kerexeta Tolosan zen. Bakarrik zegoen, kafea hartuz. Bere gisa esaten ari zen:

— He vendido quinientas ovejas!

— Koño! Quinientas ovejas? —esan zion, harriturik, zizurkildar batek albotik.

— Bai, nekabendios! Ehun eta berrogeita hamar —erantzun zion Kerexetak.

IKUSI AL DUZU JAINKORIK?

Mundua pixka bat korritua zuela uste zuen bati, Kerexetak galdetu zion:

— Zu ibili al zara Portugalen eta Estrecho de Gibraltarren eta hoietan?

— Bai —erantzun zuen besteak.

— Ikusi al duzu Jainkorik?

— Ez.

— Ez da orduan Jainkorik —esan zion Kerexetak—. Zu gizon argia zara eta, izan balitz, ikusiko zenuen.

ALPAPA ETZANDA

Alpapa edo alfalfa ganaduei emateko belar mota bat da. Baserri batean alpapa txikià eta motza ageri zen. Auzoko batek etxe hartako gizonari, adarra jo asmoz, galdetu zion:

— Zer? Alpapa etzanda?

— Altxa etzanda —erantzun zuen baserritarrak. (Altxa etzan-da: Altxatu ez zen eta; ez baitzen altxatu).

AKERRAK ETA MUTILZAHARRAK

Azkarateko Joxe eta Lurzubiagako Domingo «Motto», auzolanean ari ziren. Biak mutilzaharrak ziren eta biak total samarrak. Lurzubiagakoek «Akerra» goitizena zeukaten. Etxe batean eta bestean, bazen mutilzaharrik ugari. Arratsaldekoa egiten hasi ziren eta Motto tok esan:

— Hi, Joxe! Ekar zak ko-kopa hori.

— Ko-koño, Motto! Hi ere agintzen? Ko-komuniokoan ka-kalabazero atera hintzen.

— Ba-bai! A-azkaraten ere ba-bazegok mutilzahar pila.

— Bai Lu-luzubiagan ere a-aker pila ederra.

MOTTO SOLDADU

— Nora hoa, Motto? —galdetu zioten.

— Ingalaterra, Ferrol Marina, Errusia, Alemania, Ingalaterra. Gerra diagu, gerra.

Uste hoiekin joan zen Motto soldadu. Gero tiroan sartu zuten. Hona bueltan zer kontatzen zuen:

— Tiroan sartu ninduten. Begi bat ixten jakin ez eta sudurzapiz estaltzen nuen. Tiratu eta denak bel-

tzean. Domingo Labaka! hotsegin zuten. Presente!
—erantzun nuen nik. Hura bildurra baten bat buruan
jo ote nuen. Usted primero! —esan zuen. Eso es men-
tira! —nik. Hura bazkaria! Neu onena.

Begia ixten jakin izan balu, zer egingo ote zuen
Mottok?

MOTTO GARO EBAKITZEN

Mottok hiru egun egin zituen mendian, garo eba-
kitzen. Etxera etorri zen eta anaiari esan zion:

— Beno, Iñizio. Garotara joan behar diagu.

— Zenbat egunetan izan haiz? —galdetu zion
anaiak, askorik ebakiko ez zuen susmoz.

— Hiru egunetan.

— Joan hadi beste pare bat egun. Gero ekarriko diz-
kiagu denak.

XUSPARRO

— Atzo sator zuria harrapatu diat —esan zuen zi-
zurkildar batek.

— Sinesten diat, bai —erantzun zion Xusparrok—. Neronek ere atzo zozo zuria harrapatu nian. Harrigarri duk denak egun berean suertatzea.

Tapia, asteasuar soinularia, Amezketako Huarten izan zen, gaztetan. Lehen samarreko irteera omen zuen. Hamabost duro eman zizkioten. Garai haietarako, dirutza zen eta Tapia gaztea pozik etxeratu zen.

— Zer moduz ibili haiz? —galdetu zion Xusparrok.

— Ederki. Hamabost duro eman dizkidate.

— Abiatzeko esango zizuten.

— Zer?

— Gehiago ez joateko.

MOTZAK ETA ZORROTZAK

Elizara ustez berandu zihoan batek Pello Errotari galdetu zion:

— Pello! Meza pasia ote? (pasatua).

— Hemendik ez —erantzun zuen Pellok—. Goiko bidetik izan ez bada.

Agure bati galdetu zioten:

— Abuelo, cuántos años tiene usted?

— Cuatro veintitrés, nahi baduk enteni zak eta nahi ez baduk ez.

Orain suertea tokatu zaigu. Ameriketan anaia hil zaigu.

— Egun ederra bota diagu.

— Zer duzue, ba?

— Aitaren hiletan izan gaituk eta gazta nahikoa jan diagu.

Bi ehiztari erbitan.

— Joxe! Hor duk.

— Pun, pun! —tiratu zuen Joxek.

— Bota al duk?

— Non zen?

ZUMAIA - GIPUZKOA

KUKU ERLOJUA

Monin-en etxean bazen kuku erloju bat, orduak kuku-kuka jotzen zituena. Ordu batetan kuku, ordu bietan kuku-kuku, hiruretan kuku-kuku-kuku, eta horrela besteak ere. Monin behin goizaldean etxeratu zen. Ez zekien zer ordu zen, baina bazekien berandu zela. Isil isilik sartu zen etxean, andreak entzun ez zezan. Honetan erlojua jotzen hasi zen:

— Kuku, kuku, kuku...

Monin agudo abiatu zen erlojuaren azpira. Zenbat jotzen zituen zain egon zen eta laurak jo zituen. Lau kuku, beraz. Orduan berak, erlojuaren azpitik, beste zortzi «kuku» jo zituen, andreak hamabiak zirela pentsa zezan.

SU, MUTILAK!

Gerran ari ziren eta Monin ere han zebilen, ahal bezala biziari eutsiz. Abiazioa gainean zen eta norbaitek esan zuen:

— Su, mutilak, alemanak zetozek eta.

— Geroago berriz ere:

— Bazetozek.

— Nortzuk?

— Nazionalak.

— Orduan ez bota —esan zuen Moninek—. Berez eroriko dituk.

SALBATZEKO ITO

Beste gertaera hau ere kontatzen zuen Moninek gerratik. Bi mutil sendo andariak ziren. Baserritarrak biak eta oso indartsuak omen ziren, lanbide hartarako behar zen bezala. Irakastunak honelako instruzioak eman zizkien:

— Odolik edo horrelako zerbait denean, bendatu eta estutu.

Mutilak beren lanean ari zirela, gudari bati balak bekokia ebaki zion. Odola hasi zitzaion eta andariak

berehalaxe lepoa bendatu zioten. Bai eta estutu ere. Bertan ito zuten.

URA ETA SUA

Zumaiar marinel bat otarrain (langosta) otarreak garbitzen ari zen uholean. Uhol urak oso zikin etortzen dira eta hala norbaitek albotik esan zion:

— Ez ahal haiz ur horrekin garbitzen ariko!

— Horrekin zer esan nahi duk? —bihurtu zion marinelak—. Ur irakinez sua egiten al duk, ba?

HILA BIZIRIK

Zumaiar batzuri urrungo ahaide bat hil zitzaien. Egunkarian eskela ikusi zuten eta hala jakin zuten «Trezet» hil zela. Ez zeukaten harreman haundiegirik familia harekin eta egunkaritik jakin zuten nora joan behar zuten. Pasaiko San Juanara joan behar zuten. Hiru lehengusu harantz abiatu ziren. Pasaian defuntuaren

etxea han-hemen galdetuz topatu zuten eta barrura sartu ziren. Hilaren aurrera heldu ziren eta hiru gizonak errezatzen hasi ziren, belauniko. Hila, ohi bezala, luze etzana zegoen ohean, oinak gorantz zituela. Halako batean oin bat behera erori zen, albora alegia. Zumaiarrek elkarri esan zioten:

— Ikusi al duk hori? Hanka mugitu dik.

— Zuek zumaiarrek izango zarete —esan zuen ohekoak.

Zumaiarrek harritu ziren, bai eta bildurtu ere. Hilaren andre alarguna zen hura, atsedenean zegoena. Okerreko gelan sartu ziren. Defuntua alboko gelan zegoen eta zumaiarrek hara joan ziren gero, pasiluan zehar denei eskua emanaz eta agurtuz.

— Hor zegok, bai! —esan zioten ahapetik elkarri eta buelta egin zuten, bat ere errezatu gabe.

ALDAPAN GORA FRENATZEN

Jose Mari Kerejeta indartsua eta bizartsua zen. Bai eta ateraldi eta asmazio handietakoa ere, orrialde honetan lehenago ere aterea dugunez. Behin bazen bizikleta karrera bat. Euskal Herriko Itzulia edo «Vuelta al país Vasco». Kerejeta ere atzetik abiatu zen bizikletan, esanez:

— Hauek nola dabiltzan ikusi behar diat.

Bueltan norbaitek galdetu zion:

— Zer moduz, Jose Mari?

— Hauek ezer ere ez —erantzun zuen Kerejetak—. Pitilinak hainbat indar ez zeukatek. Itziarko aldapan gora frenatzen joan behar izan diat, atzetik joateko.

HEMEN JOTZEKO

Txindurri esaten ziotena eta beste lagun bat ingudean burdina jotzen ari ziren. Txindurrik porraz jotzen zuen eta besteak hatzamarrez markatzen zion ingudean, esanez:

— Hemen! Hemen!

Halako batean, tauki eta tauka zebiltzala, Txindurrik hatzamarrean jo zuen laguna.

— Ai! Zertan ari haiz?

— Heuk esaten huen, ba, hemen jotzeko.

JOANITO ARROSPE

Joanito Arrospe, handia, liberala eta biazantea. Beti ondo jantzirik. Behin trenean Antoni Torrebarrik esan zuen:

— Ikusi al duzu nolako gorbata daraman Joanitok? Koltxoi azalez egina zirudien.

Hurrengo batez Joanitok Antoniri:

— Ikusten al dun gorbata hau?

Antonik:

— Bai, oso dotorea duk.

Eta Joanitok:

— Hau ez dun koltxoi azalez egina. Hau potro azalez egina dun.

Joanito larru gorritan ibiltzen zen hondartzako haizetan. Norbait sumatzen zuenean, toaila zuria jartzen zuen gerri bueltan. Antoni agertu zen eta esan zuen;

— Hara Kristo kolumna! (Jesukristo pasioan, erdi biluzik kolumnaren kontra).

Eta Joanitok:

— Baina Antoni! Ez naizela Kristo kolumna! Joanito Arrospe naun!

Eta toaila bota zuen.

Joanito trenean zihoan, bi emakume eta haur pila baten ondoan. Haurrak bazterrak endregatzen ari ziren eta Joanito ere bai. Haur bat erori eta «ama, ama!» negarrez altxatu zen. Emakume batek esan zuen:

— Zer hitz motza eta ederra: ama.

Joanitik albotik:

— Nik ere badut hitz bat, motza bezain ederra:
kaka.

Donostiako jatetxe batetan zopa eta arrainaren ondoren, untxia eskatu zuen. Jatun handia izaki, txikia iruditu zitzaion eta neskameari esan zion:

— Aizu, zer eskatu dizut nik hirugarren platertzat?
Neskameak:

— Ez al zen, bada, untxia?

Joanitik orduan:

— Bai, ba! Untxia! Ez untxiaren pitilina!

PATXI BARRANDERO

Patxi kale garbitzailea zen. Eta erretzailea ere bai. Norbaiti bokila bat ikusi eta harexen ilusioa zuen beti. Anaia nabeganteak noizbait ekarri zion.

— Orain ez diat behar —esan zuen Patxik—. Badiat bat paso eta guztikoa.

Labatibaren muturra edo dutxulua aurkitu zuen kale bazterrean eta harekin ederki erregulatzen zuen kea.

Behin neskame zegoen andregaiak esan zion:

— Hi, Patxi! Etxekoandreak *mañana por la mañana*

esan zidak. Zer duk hori?

Eta Patxik:

— Bai, neska! *Mañana* bihar dun eta *por la mañana* etzi.

Afrikan soldadu zegoela ere, *tengo hambre* ezin kartan ipini eta *tengo etengabe* bidali zuen. Baita ulertu ere ederki etxean.

URA EGON BALITZ

Zumaian bada esaera oso berezi bat:

— *Ura egon balitz, ardoa edango genuen. Urik ez dagoelako, ura edan behar.*

Zer da hori? Itxasotik lehorrera, ardoa edateko amorratzen zetozenean, marea behean bazen, ezin sartu. Orduan, urik ez dagoelako, berriro ere ura edan behar.

HI, BARKUA!

Zumaiako kaian antxoba lanean ari ziren. Antxc ba deskargatzen edo horrela. Barku bat beren sare gainera etortzen ikusi zuten. Arrantzale batek beste bati

agindu zion:

— Hi! Egiok hitz horri. Esaiok zerbait.

— Hi, barkuaaaa! —hots egin zuen bestea.

Apur batean zain egon zen eta geroxeago lagunari esan zion:

— Ez dik kasurik egiten. Gailegoa izango duk.

ARKUMEAREN LARRUA

Zumaiako etxe batean, Paskoetan, arkume bat bizirik ekarri zuten. Hurrei ilusio haundia egingo ziela eta bizirik ekarri zuten, gero hiltzekotan. Haurrak nahikoa jostatu zirenean, andreak esan zuen:

— Orain harakina ekarri beharko dugu, bestela triskantza egin behar dugu.

Harakina deitu zuten, etorri zen eta arkumea hil zuen.

— Zer eman behar dizugu? —galdetu zion etxe-koandreak.

— Ba, larrua izaten dugu ohitura —erantzun zuen harakinak.

— Hori gizona itsasora doanean —erantzun zuen andreak, arkumearen larruaz ohartu gabe.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	5
Abadiño-Bizkaia	7
Ahetze-Lapurdi	13
Albistur-Gipuzkoa	17
Ariatza-Bizkaia	23
Arrasate-Gipuzkoa	27
Arteaga-Bizkaia	37
Asteasu-Gipuzkoa	43
Ataun-Gipuzkoa	49
Aulestia-Bizkaia	59
Azpeitia-Gipuzkoa	63
Baigorri-Nafarroa Beherea	69
Bera-Nafarroa	73
Berriatua-Bizkaia	77
Dima-Bizkaia	81
Elgeta-Gipuzkoa	87
Elorrio-Bizkaia	93
Ezkio-Gipuzkoa	97
Gabiria-Gipuzkoa	103
Galdakao-Bizkaia	107
Garizuma	111
Goizueta-Nafarroa	115
Heleta-Nafarroa Beherea	125

Iholdi-Nafarroa Beherea	129
Izurtza-Bizkaia	133
Lauro-Bizkaia	143
Lazkao-Gipuzkoa	147
Mallabia-Bizkaia	151
Mendaro-Gipuzkoa	161
Oiartzun-Gipuzkoa	171
Ortzaize-Nafarroa Beherea	181
U.E.U.-Iruñea	185
Zaldibia-Gipuzkoa	191
Zeanuri-Bizkaia	197
Zeberio-Bizkaia	201
Zegama-Gipuzkoa	205
Zizurkil-Gipuzkoa	209
Zumaia-Gipuzkoa	221



EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S. A.

Esterlines, 10
Tf. 426319
Donostia

Pannecau, 52
Tf. 254390
64100 Baiona